

(e)

Atzo ere ihes egin genuen

Begirada euskal erbesteari
eta gaur egungo
Mexikoko eta Euskal Herriko
igarobide- eta babes-prozesuei

(zehar)
errefuxiatuekin



Kristo 9B – 5º/ 48007 Bilbao

Tel: 944248844

info@zehar.eus

www.zehar.eus

Edizioaren urtea eta lekua | Bilbo, 2021

Itzulpena | Aiaralde Ekintzen Faktoria

Lege-gordailua | LG BI 00229-2022

Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak | María Ramírez Luengo-ARRIERA

Imprimaketa | Erreka Multimedia S.Coop

Argitalpen hau lizentziapean dago:



Jarrai gaitzazu sareetan:



Finantzaketa:



Atzo ere ihes egin genuen

Begirada euskal erbesteari
eta gaur egungo
Mexikoko eta Euskal Herriko
igarobide- eta babes-prozesuei

Dosier hau *Mugak: Mexikotik Euskal Herrira. Erbeste eta harrera esperientzien mugak zeharkatzen* izeneko proiektuaren barruko ikerketa da. Beatriz de Lucas eta Ane Garay izan dira arduradunak. Andrea Aranak, Gustavo de la Ordenek, Nagore Sedanok eta Raquel Celisek ere lagundu dute dosierra idazten.

Orrialdea pasatzeko, lehenik irakurri egin behar da.

Norte Salvaje, 2021

Eskerrik asko beren denbora, oraingoa eta memoriarena,
beren oroitzapenak eta joan zirenen oroitzapenak,
orainaldi konplexu baten interpretazioa
eta ahanzturarik behar ez duen etorkizun duin baten nahia
eskaini dizkiguten pertsona guztiei.

Aurkibidea

Erbesteratzea bizi | 8

Muga zeharkatzea | 10

Babestua sentitzea | 11

Memoria kolektiboari erreparatu, harrera hobea egiteko | 13

Euskaldunen erbestea Frantzia eta Mexikon, gerra garaian eta lehenengo frankismoan | 16

Euskal gizartearen lekualdatzea | 17

Frantziako harrera | 23

Harrera bizipen ugari | 24

1939 urtetik aurrerako harrera-politika: kontzentrazio-esparruak | 26

Frantzia bizirautea | 27

Mexikora ihes egitea | 28

Mexikorako bidaia | 30

Mexikora joan zirenak | 31

Mexikoko erakundeen harrera | 32

Mexikon erbesteratutako komunitatearen biziraupen ekonomikoa eta osaera | 33

Gizartearen harrera Mexikon | 34

Iraganetik orainaldira | 38

Mexiko gaur egun zeharkatzea | 42

Irtetea | 43

Migrazio-politika Mexikon | 48

Hegoaldeko Muga Plana | 53

Migrazio Estazioak eta Behin-behineko Egonlekuak | 55

Bidea | 58

Bidaia emakumeen eta LGBTI pertsonen kasuan | 60

Kolektiboki bidaiatzea, indarkeriaren aurrean | 62

Arrazakeriaren eta harreraren artean: migratzaileen eta errefuxiatuen igarobideari erantzunak | 65

Irun eta Hendaia arteko muga zeharkatzea | 70

Irtetea | 72

Europarako bidaia | 74

Europa heldzea. 2018ko uda | 76

Muga zeharkatzea | 83

Migrazio- eta asilo-politika Frantzia | 87

Amnesia kolektiboaren aurka, babesak | 91

Bibliografia | 99



Erbesteratzea bizi

Gizateriaren historian behin eta berriz errepikatu den fenomeno da erbesteratzea. Ez gara gai imajinatzeko historiako garai bat, zeinetan, jazarpenaren eraginez, gizartearen zati batek ez duen bere etxea eta komunitatea utzi behar izan. Euskal Herriko historia hurbilean ere izan da erbesteak. Orain 80 bat urte, hainbat itsasontzi irten ziren «gerrako haurrez» beterik euskal kostaldetik, Frantzia, Ingalaterra edo Errusia helburu. Gerra Zibiletik eta Francoren diktaduraren hasierako atzaparretatik ihes egiten zuten. 1936ko irailean, Iruneko milaka biztanlek Santiagoko zubia zeharkatu zuten, zeinak Gipuzkoako herria Hendaiarekin lotzen baitu, Iparraldean behin behineko babes bila. Hala bada, behartutako lekualdatze horien ondorioz, 1943ko martxoaren lehenean, Euzko Deya aldizkariaren lehenengo zenbakia argitaratu zen, «Erbesteko euskaldunen ahotsa». Errepublikazaleen eta abertzaleen erbesteratze-garai hartan, Frantzia eta Mexiko babeserako ezinbesteko herrialdeetako bi izan ziren. Gaur egun ere, biak ala biak dira migratzaileentzako eta errefuxiatuentzako igarobide eta helmuga.

Erbeste- eta aterpe-bideak kontrako noranzkoan biratu dira atzotik gaurrera. Hala ere, dossier honen helburua ez da bi garai ezberdin horietako erbesteratze-prozesuen konparazioa egitea. Ezin dira bien ateko ezberdintasunak saihestu. Era berean, ezin ditugu narratiba bakarrean bildu Euskal Herrira iristen direnen eta Erdialdeko Amerika eta Mexiko zeharkatzen dituzten pertsonen prozesu migratzaileak. Pertsona bakoitzak bizkarrean jazarpen-istorio, ihesaldi eta migrazio-proiekturako xede bana dakar. Euskaldunen erbesteratze hartaz dugun memoriak, ordea, badiu elementu komun batzuk: itsasontziak, taldean lekualdatzea, bidea non bukatuko edo helmuga zein izango ote den jakiteko ziurgabetasuna, helmuga-gizartearen partetik jasotako ukoa, baina baita beste askoren partetik jasotako elkartasuna eta harrera ere.

Ihes egitea, etxea, komunitatea eta familia atzean uzteak eragin handia du emozioei dagokienean. Errefuxiatu ugari adierazi duten

moduan, erbesteratzeak zauria sortzen du, aurreko bizitzarekiko haustura bat, etengabeko nostalgia, falta sumatzea, etxe berrian beti etorkin sentitzea. Sentimenduoi esker, Euskal Herritik XX. mendean izan ziren erbesteratze-prozesuei buruz hausnartzeko eta berauek bateratzeko gune bat sor dezakegu. Gaur egun alderantzizko norabidean jarduten dute eta. Ez ditugu ahaztu behar, ordea, testuinguru historiko, politiko eta sozial bakoitzaren berezitasunak. Hori dela eta, atzera begiratu nahi genuke, Euskal Herriaren erbesteratzeari, gurera babes bila datozenak hobeto ulertu eta haienezako babes hobe bat eskaintzeko asmoz. Laburrean, erbestea eta babesa ezin banatuzkoak dira. Biak dira bide beraren etapak, leku segurua topatu edo hartara itzultzeko helburu dutenak.

Muga zeharkatzea

Mugek, denboran zehar, funtzio aldaketa nabarmenak izan dituzte. Batez ere, Gerra Hotzaren ostean, globalizazio-prozesuak sakoneko aldaketa ekarri zuen muga zurrunik gabeko ideia zabaltzen baitzuen. Helburua kapitalen, produktuen eta estatu ezberdinetako pertsonen zirkulazio libre eta azkarra zen. Aitzitik, askatasun hori ez zen era bidezkoan banatuko. Kontrara, ordutik aurrera, mugek bestelako adiera bat hartu zuten. Muga jakin batzuetako kontrolak desagertu ziren bitartean, beste batzuk indartu egin zituzten. Giza-mugikortasuna areagotu zenean, muga funtzio berria berauek zeharkatzen saiatzen ziren pertsonen kontrol sozial selektiboa bihurtu zen.

Globalizazioak, halaber, Munduko Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko arrakala areagotu zuen. Mugak dira, hain zuzen, Iparraldeko Estatuaren ordena-kolonialak bere burua iraunarazteko erabiltzen duen ezinbesteko tresnetako bat. Kasu batzuetan, muga horiek ikusi egiten ditugu, fisikoak dira eta azpiegitura handiz osatuta daude, AEBen eta Mexikoren artekoa, adibidez. Beste batzuk, berriz, ez dira hain agerikoak, malguagoak edo mugikorak dira, baina batzuentzat ez dira hain irisgarriak, Irunen eta Frantziaren artekoa, kasu.

Gainera, mugak herrialdeen arteko lerro geografiko banatzaileak izateaz gain, barrura begira ere gorpuzten dira: hiri beraren barruko auzo-segregazioaren edo atzerritarren asentamenduen bitartez, bizileku-baimena eskuratzeak eta mantentzeak suposatzen duten oztopo burokratikoaren bitartez edota arraza- eta etnia-profilaren arabera hiriguneetako kaleetan egiten diren polizia-kontrol selektiboen bitartez.

Edozein dela mugaren moldea, herrialde horietara sartzeko bide-legalak eta seguruek gainezka egitea eragiten eta gutxitzen dituzte ixte-politikek, militarizazioak eta Iparraldeko herrialdeetatik kanporatzeak. Migratzaileak eta errefuxiatuak behartu egiten dituzte, hortaz, bide gero eta arriskutsuagoak egitera eta haien bizitzak ere arriskuan jartzen dituzte. Iraganari erreparatuz gero, muga-kontroletako logiketan eta formetan antzekotasunak topatuko ditugu, bereziki gatazka eta diktadura egoeretatik ihesi, beste herrialdeetan babesleku segurua bilatzen duten pertsonen artean. Euskaldunen kasua, adibiderako. Espainiako Estatuak eragindako lekualdatzeen kontra, Frantziak hartu zituen neurriak, funtsean, sarbidea ukatzea eta migrazio-fluxuak mugan bertan zein kontzentrazio-esparruetan geldiaraztea izan ziren. Horren aurrean, Mexikoko gobernuak harrera duinaren aldeko ekimena abiatu zuen eta gerratik eta etortzeaz zegoen diktadura luzetik ihesi egin zuten milaka lagunei babeslekua bermatu zien. Gainera, gaur egun ere ikusten ari garen moduan, garai hartan mugak ireki eta itxi egiten ziren, nazioarteko elkartasuna eta babesa harrera-herrialdeetako gobernuen beharren eta interes politikoen arabera baldintzatuz.

Babestua sentitzea

Erbesteratzea estatu baten partetik jasotako babesaz harago doan esperientzia da. Azken bizi-itxaropena da, gure herrialdean geratzea galarazten duen jazarpenaren aurrean bizirauteko aukera. Pertsonen eta herrialdeen dimentsio guztietan du eragina erbesteratzeak. Etengabeko deserrotzea da.

Malenkonía, funtsezko tristura baten gisan, bidelagun da. Atzean geratzen dira geografiak, usainak, koloreak, pertsonak, komunitateak... Atzean geratzen dira bizi-proiektuak eta babesean bizi daitekeelako itxaropena. Mundu-ikuskera aldatu egiten da. Erbesterako bidea minak eta sufrimenduak markatuta dago, baina bizitakoak bizita, indarberritzeko erresistentziak ere markatzen du. Jazarpenik eta miseriarik gabe, segurtasunez eta autonomiaz bizitzeko desiran oinarritzen da itxaropena.

Dena utzi, bidaiatu, muga zeharkatu, beste herrialde batera iritsi eta... Orduan zer? Migratzaileen eta errefuxiatuen aukerak helmuga- eta igarobide-herrialdeen migrazio- eta harrera-politiken arabekoak dira. Administrazio-egoera erregulatu ahal izatea, nazioarteko babesa jasotzea, lana eta alokairua lortzea, ikasketak balioztatzea edo familia berriz elkartzea... Horiek denek markatzen dute, zalantzarik gabe, gaur egun datozen pertsonen bizi-ibilbidea. Iraganean erbesteratu zirenek ere eskubide horiek ezinbestekoak izan zituzten bizitzeko.

Igarobide- eta helmuga-herriaren politikez gain, babes-sentimenduan eragina duten beste faktoreak dira, pertsona bera, bidean topatu dituzten gizarte-ereduak eta, batez ere, helmuga-gizartean zabaldua dagoen xenofobia, arrazismoa eta diskriminazioa. Azken aldian, kezagarria da muturreko eskuineko iritzi publikoaren eta gorroto-diskurtsoaren gorakada. Hori dela eta, zaila izaten da migratzaileentzat eta errefuxiatuentzat bakean eta askatasunean bizi ahal izatea.

Erbestera, hau da, aukeratu ez den helmuga batera egokitzeak zailtasun ekonomiko, sozial eta identitario ugari dakartza beregain. Orain dela hamarkada gutxi batzuk baino ez Frantzia eta Mexikon babesa hartu behar izan zuten euskaldunek askotariko esperientziak bizi behar izan zituzten. Batzuk harrera beroarengatik gogoangarriak. Baina denak, era berean, oztopo ugari eta ziurgabetasunaz josirik.

Aurrera egiteko ahaleginari eta erbesteratuekiko elkartasunari esker dira gaur herrialde haietan geratu zirenak bertako gizartearen funtsezko eragile. Gaur egun ere erbestearen errealitateari aurre egin behar dioten gizarteak

dira. Behinola esku hutsik alde egin behar izan zutenek aurre egin behar diote orain babesa bilatzen ari direnak hartzeko moduari. Ihes egiteko arrazoiak eta bidearen eta helmugaren ezaugarriak beste batzuk dira orain. Edo agian ez.

Memoria kolektiboari erreparatu, harrera hobea egiteko

Memoria historikoa berreskuratzeke kolektiboen ahalegin nekaezinari esker jaso ditugu erbestea bizi izan zutenen testigantzak, bidaiaren latza eta gerora harrera egin zieten arren, Frantziara eta Latinoamerikara iritsitakoan topatutako trabak.

Ezin dugu gure historiaren atal hori ahaztu: gu ere erbesteratu ginen. Orain harrera-herrialde izatea dagokigu. Pertsona migratuen eta errefuxiatuen eskubideetan sinesten dugunok aldarrikatu egin behar ditugu haientzako harrera integral eta duina, eta beren eskubideen erabateko bermea. Gure ustez, memoria kolektiboa berreskuratzeak aukera ematen digu bortizkeriatik eta miseriatik ihesi datozenekin enpatizatzeke.

Dosier honen helburua ez da frankismoaren lehen urteetako erbeste-esperientzien narrazio historikoa izatea. Ez da halaber, Mexikok eta gertuen dugun mugak duten politiken analisi sakona egitea ere ez. Hala bada, dossier honek xede du euskaldunen erbesteratzearen inguruko informazioa eta testigantzak eskaintzea, baita gaur egun ere milaka migratzailek eta errefuxiatuek bizi dutena biltzea. Era berean, agerian utzi nahi ditugu migrazio-politika murriztaileak mugikortasuna kontrolatzera bideratuak daudela eta ez eskubideak bermatzera. Politika horiek ondorioak dituzte migratzaileen eta errefuxiatuen bizitzetan, baita joan-etorrietan laguntzen eta hartzen dituztenengan ere. Politikek bidaia are gogorragoa egiten dute, bereziki emakumeentzat eta LGTBI pertsonentzat.

Dokumentua sortzeko memoria historikoarekin lotura duten adituak eta elkarteak elkarriketatu ditugu, baita Euskal Herrian eta Mexikon migratzaileak eta errefuxiatuak laguntzen dituztenak ere. Hona hemen euren izenak:

- Amicale des Anciens Guerrilleros Espagnols en France-Pirineo Atlantikoak eta Landak, Baiona
- Amigos del campo de Gurs elkarteko lagunak
- Ana María Izaskun Ruiz Guilarte
- Asociación Republicana Irunesa Nicolás Guerendiain
- El Saltillo migratzaile-etxea
- Fray Matías de Córdoba giza eskubideen zentroa
- Tolosa eta Oñatiko Zehar^[1] harrera-etxeak.
- CIMADE
- Djakite
- Etorkinekin
- Intxorta 1937
- Irungo Harrera Sarea
- Joseba Buj
- Josu Chueca
- Mariana Zaragoza
- MULISOL
- Nagore Sedano

Era berean, Mexiko eta Euskal Herritik pasa diren eta erbestetik bizirik atera diren pertsonekin egoteko aukera izan dugu. Esker bereziak eman nahi dizkiogu Intxorta 1937 elkarteari gure ikerketa aberasteko “Emeek Eman” lanean bildutako testigantzak erabiltzen uzteagatik.

.....
[1] Zehar da CEAR-Euskadiren izen berria. 2021 ean, marka-aldaketa egin dugu 25. urteurrena dela eta. Aurrerantzean, gure lege-izendapena Asociación Zehar-Errefuxiatuekin izango da.

Eta bereziki Ana Mary Ruizi, gure elkartearekin urteetan elkarlanean aritu delako. Gurekin partekatu duelako bere familiaren Mexikoko erbesteratzearen memoria eta Euskal Herrira iristen direnenganako konpromisoa aldarrikatzen duelako.

Eskerrak elkarriketatu ditugun elkarte eta pertsona guztiei heien bizipenak, ezagutza eta testigantzak gurekin hain eskuzabalki konpartitzeagatik.



Euskaldunen erbestea
Frantzian eta Mexikon,
gerra garaian eta
lehenengo frankismoan

Euskal gizartearen lekualdatzea

«Gure amaren aitona errepublikazalea eta nahiko ezaguna zen.

Gure izeba, gerran hil zena,

hura zen manifestazioetan-eta bandera eraman ohi zuena.

Hori dela eta alde egin genuen Pasaiatik Francoren tropak sartu zirenean.

Bilbora joan ginen orduan».

Teresa Muñoz, Intxorta 1937 elkarteak bildutako testigantza.

Herritarren emigrazioa eta behartutako irteera Euskal Herriaren historian betidanik egon diren fenomenoak dira. Hala eta guztiz ere, 1936ko estatu-kolpe frankistak eta diktadurak inoizko ihesaldirik handiena eragin zuten.

Euskal herritarrak 1936ko udako lehen asteetatik bertatik hasi ziren lekualdatzen, Francoren armadak Bizkaian eta Gipuzkoan aurrera egin ahala (Araba eta Nafarroa berehala geratu zien armada matxinatuaren eskuetan). Pertsona haiek, errepublikazaleak eta abertzaleak, Teresa Muñozen familiak bezala, jazarpenaren beldurrez egin zuten ihes. Baina bonbardaketei eta borrokei beldurragatik ere alde egiten zuen jendeak. Bi bide nagusi ziren: batetik, Bizkaia aldera, eta bestetik, Iparraldera. 1937ko ekainean, ordea, Bilbo Francoren tropen esku erori zen, eta Frantzian, Katalunian edo errepublikazaleen esku ziren herrialdeetan babes hartzen hasi behar izan zuten.

Irunen, hilabete iraun zuen borrokaldiak. 1936ko uda amaieran, gero eta indar handiagoaz erortzen ziren bonbak Irunen. Intxorta 1937-k^[2] bildutako testigantzan deskribatzen du Angelita Rodríguezek: *«Irunen bonbetatik ihes egin behar genuen. Etxe azpiko taberna zen gure babeslekua. Bizilagun guztiak jaisten ginen hara, tabernara, eta uzkurtuta egoten ginen bertan. Bonbardaketa handi horiek baino lehen, artasoroetara joaten ginen ezkutatzera»*. Irungo

.....
[2] Memoria historikoaren berreskuratzerako elkarte.

Nicolás Guerendiain elkarte errepublikanoko Víctor José López-Barrantesen testigantzari esker imajina dezakegu Angelitak, eta beste hainbestek, 1936ko abuztu hartan igarotako beldurra: «*bazen Almirante Cervera izeneko kruzero bat Irunen obusak botatzen zituena. Obusak Hendaia gainetik pasatzen ziren eta jendeak esaten zidan tranbiak ziruditela*».

1936ko irailean, inguruko herrietara aldatu ziren 16.500 bat pertsona, emakumeak, haurrak eta nagusiak batez ere. Gerora matxinoen tropek hartu zituzten herriok. Beste batzuk Hendaiara joan ziren, Behobiako eta Santiagoko zubiak oinez zeharkatuz edota Donostiako portutik irteten ziren itsasontzietan. Angelita haietako bat izan zen.

Hasiera batean, mugaren beste aldean babesa bilatu zutenak Iparraldeko herrietan geratu ziren: Baiona, Hendaia, Angelu, Urruña edo Donibane Lohizunen. Angelitaren hitzek ihesaren aurreneko uneak biltzen dituzte: «*Hendaiatik, Nazioarteko Zubitik, ikusten genuen [Irun] sutan... Cipriano Larrañaga kalea ere erabat eraitsita zegoen, desastrea izan zen. Gure amak, izebak eta guk Irun zeharkatu genuen mugara arte, ez genuelako gizonik. Bertan hartu eta trenera eraman gintuzten, bertako geltokira. Herritan eta, antza, errefuxiatuentzako prest zituzten etxeetan banatu gintuzten. Han egon ginen errefuxiatuta*».

Bidaiaren hasieran, ihesaldia tarte baterako izango zela uste zuten, errepublikanoen armadak kontrola berreskuratzen zuen arte. Gainera, Frantziako Gobernuak herritarrak itzultzeko asmoa zuen, eta aukera ematen zien errefuxiatuei haiek aukeratutako eremura aberriratzeko. Bestela, Frantziako erdialdeko departamentuetan sakabanatzen zituzten. Hartara, 1936ko udazkenean, ihes egin zutenen biztanleen erdia, gutxi gora behera, etxera itzuli ziren, ordurako Francoren kontrolpeko eremuetara. 5.000 lagun baino ez ziren geratu Frantzian denbora luzez.

Aldi berean, kapitulu honen hasierako Teresa Muñozen hitzek adierazi bezala, Gipuzkoako herritar ugari Bizkaira mugitu zen. Jendeak bere etxeetan bertan egin zien harrera. Eusko Jaurlaritzak ere bere ekarpena egin zuen, 70.000 lagun harrera ahalbidetu baitzuen (Carballés, 2007: 686). Hala ere,

1937 urtearen hasieran, matxinatutako armadaren erasoaldiak etengabekoak izan ziren Bizkaian eta herritarren lekualdatzeak zaildu ziren. Teresa Muñozen familiak eraso horietako bat sufritu zuen Bilbora bidean zirenean: Durangoko apirilaren leheneko bonbardaketa. Testigantza beldurgarria da: «*Durangoko bonbardaketa jazo zenean, bertan ginen. [...] gure izeba, buruz behera jarri omen zen, hegazkin horiek guztiak ikusteko beldur baitzen. Ni haren azpian nengoen, besoetan ninduelako. Ni oso txikia nintzen [...] nire ahizpa bere alboan zen, eskua izebaren sorbaldan zuela. Baina denak lurreen. Bonba lehertu zenean, izeba hil egin zen eta ahizpari eskua moztu zion. Niri ez zitzaidan ezer gertatu azpian nintzelako. Ozta-ozta libratu nintzen*».

María Teresa Lasalle donostiarrak ere gogoan ditu hegazkinak eta lehergailuen talka Durangon. Apirilaren 26ko Gernikako bonbardaketa ere oroitzen du. Bere testigantzari esker irudikatu dezakegu, erasoek aurrera egin ahala, herritarren desplazamendua: «*bum, bum, bum, hegazkinak. Zornotzara iritsi ginenerako ezin izan genuen trenik ez ezer hartu, zaurituez lepo zetozelako kamioiak. Kamioi batean sartu eta Bilbora joan ginen. Bilbotik Santanderrera eraman nahi gintuzten antza. Nire ahizpak hala esan zion: “ama, zuk ez al duzu lehengusurik hemen?”. “Bai, Somera kalean”. “A, ba joan gaitezen haiekin”. Eta han jendetza bildu omen ginen. Han behintzat bagenuen bizilekua*».

Bizkaian egindako Kondor Legioaren erasoaldi hau eta beste batzuek Bilbon antzera gertatuko zelako susmoa zabaldu zen. Horregatik eskala handiko ebakuazioa antolatu zuten (Carballés, 2007: 688). 1937ko neguan, Eusko Jaurlaritzak haurrak Europako beste herrialde batzuetara bidaltzeko ekimena martxan jarri zuen. Britainiako armadaren eta Frantziako elkarte humanitarioen babesa lortu ostean, urte hartako martxoan bertan lehenengo bi itsasontziak abiatu ziren Bermeotik Iparraldera. Maiatzean hasi ziren ontzien irteera masiboak irakaslez eta irakasle-laguntzaile eta haurren zaintzaz arduratzen ziren emakumez beterik. Ontzi horietako bat Habana izenekoa izan zen eta hainbat bidaia egin zituen Frantziara, haurrez beterik. Batzuk SESBn ere bukatu zuten errefuxiatuta. Southampton espedizio ezagunean, ia 4.000 ume eraman zituzten Ingalaterrara. Beste merkataritza-ontzi ugari ere

parte hartu zuten, Frantziatik etorritako herritarrek emandako bizigaiekin. Familiek, etsiturik, haurrak herrialdetik ateratzeko eskaeretan «*atzerrira*» edo «*ahal den lekura*» eramateko idazten zuten (Carballés, 2007: 689).

Azkenik, ekainean, Bilbo frankisten esku geratzear zela, 100.000 lagunek Enkarterrira egin zuten ihes. Bertatik Santanderrera eta Asturiasera joan ziren eta Frantziako eta Ingalaterrako ontzietan bukatu zuten. Lekukoen arabera, bidaiaren baldintzak penagarriak ziren. Itsasontziak, osasun-instalazio negargarriak zituzten eta jendez lepo, kubiertan bertan ere, joaten ziren. Gainera, ez zuten ia jatekorik jaso bidaia osoan zehar. Julia Monge, Intxorta 1937 elkarteko kideak hala dio: «*Ikatzka ekarri zuten lekuan sartu zituzten. Bolako gazte ematen zieten jateko. Ingalaterrara eraman zituzten, eta han, ez dakit zer gertatu zen baina Frantziara ekarri zituzten berriz. 4 edo 5 egun egon ziren bidaia hori egiten eta bolako gazta jaten. Denak zorabiatuak*». Horietako itsasontzi batean Algortako Kepa eta Josu Etxurra anaiak zeuden. Horrela azaldu dute haien bizipena: «*“Plou-baz-la-nec”, izan zen itsasontzia, hori zen ontzia [...] bai, satora eraman gintuzten: “zu jar zaitez maletaren gainean”, manta bat eman zidaten eta beste bi anai-a-errebei beste bat. “Ez zaitez mugitu, dena lapurtuko dizute eta!” Han nintzen ni tontoa banintz bezala, ez dakit nola. Gau osoa eman nuen han!*».

Borrokaldiak, bonbardaketak eta egoeraren larritasunak eraginda, familia ugari banatu behar izan ziren euren bizitzak salbatzeko asmoz. Errenteriako Kontxi Urkijok halaxe kontatzen du Intxorta 1937 elkarteak jasotako testigantza honetan: «*gogoan ditut, oraindik ere, nire anaiarengandik banandu nintzeneko beldurra eta estutasuna. Nazioarteko zubira iritsi aurretik misil-alarmak jo zuen eta soto batean gorde behar izan ginen. Etxe hura bonbardatu zuten. Urteetan amets gaiztoak izan ditut hondakinen, habeen eta pareta-zatien artean egotearekin*».

Teresa Muñozek, zeinaren izeba ere Durangoko bonbardaketan hil baitzen, kontatzen du milizianoek ahizpa besoa zintzilik zuela eraman zutela ospitalera. Amak ezin izan zituen lagundu eta hurrengo egunera arte ez zuen topatu: «*bilatzen egon ginen eta Basurtun zegoen, ospitale militar batean*.



Zegoen haur bakarra zen, han hartu zuten presa handia zuelako, hala izan zen. Ospitalean egon bitartean, gu ere han izan ginen, leku hartan, baina gero alde egin genuen, eta Frantziara etorri ginen, itsasontziz».

Frantziako portuetan lehorreratzean, azterketa medikoa pasatzen zuten eta txertoak jartzen zizkieten ebakuatutakoei. Erregistroan izena eman ostean, haien helmugetara eramaten zituzten Frantzian, Belgikan edo Suitzan. Leku batean edo bestean bizitzeko faktore erabakigarria izan zen errefuxiatuen maila ekonomikoa. Momentu hartan, 1937an, ahal izan zutenek etxea alokatu zuten Hendaian. Beste batzuk berriz, etxetik urrun eraman zituzten, leku batetik bestera, aterpe bila.

Herritarren zati bat Kataluniatik itzuli zen Espainiara, Errepublikak artean baitzirauen. Angelita Rodríguez irundarrak kontatzen zuenez, Frantzian harrera egin zien familiak aita eta osaba bilatzen lagundu zien hari eta haren ahizpari. Bartzelonan ziren eta Gurutze Gorriaren laguntzaz joan ziren hara. Udalak etxe bat bilatu zien Prat de Llobregat herrian. *«Herri nekazaria zen. [...] zelaira joaten ginen letxugak biltzera eta bertako janaria jasotzera. Hasieran ez genuen erosteko dirurik, zelaletara joan behar izaten ginen. Batzuek pentsatuko dute: gezurretan ari da hori... Gezurrik bat ere ez, errefuxiatuak ikusten ditudanean pentsatzen dut: halaxe ibili nintzen ni ere».*

Kataluniara itzuli ziren, halaber, errepublikaren bandoan ari zirenak, bertan borrokan segitzeko asmoz. Gehienak gizonak ziren, baina emakumerik ere egon zen. Haietako bat izan zen Teresa Nadal, hala kontatu zien Intxorta 1937ko kideei bere Frantziarako ihesaz: *«Patata-ontzi ingelesean joan ginen, Bilbora patataz beterik heldu zen itsasontzian. Santanderrera etorri, eta emakumeak eta haurrak bertan sartu gintuzten. [...] Iparralde osoa galdu zuen [Errepublikak]. Espainiara itzuli ginen gerran segitzeko, Bartzelonara itzuli ginen. [...] Gerra ministerioan sartzeko lehiaketa batean sartu nintzen eta, azterketak egin ostean, plaza lortu nuen armamentu idazkariordetzan».*

Bertan segitu zuen lanean Teresak, harik eta errepublikanoen bandoak 1939ko urtarrilean Bartzelona galdu zuen arte. Kataluniaren erorketa eta gero, milaka zibilek eta militarrek Frantziara egin zuten ihes: ia 500.000

lagunek zeharkatu zituzten Pirinio elurtuak, mendi-bideetatik, frankisten bonba-azpian. Kataluniatik ihes egindakoek Frantzia zuten helmuga, baina harrera-herrialdeak ez zuen horrenbeste jende espero ezta nahi ere.

la milioi erdi horren artean, milaka euskaldun ziren. Askok, inplikazio politiko handirik ez zutenek, eta Frantzian baldintza gogorretan bizirauteko biderik ez zutenek, gerra bukatutakoan, etxera itzultzea erabaki zuten. Apirilean, bi urteko erbestea bukatutzat eman zuten. Itzulera *«jendez lepo zeuden abere-trenetan, eta sarri, baldintza jasangaitzetan»* egin zuten (Carballés, 2007: 706).

Frantziako harrera

«[...]Frantziak egin zuen harrera okerrera, 1937ko otsailean izan zen, Kataluniatik 500.000 pertsona etorri zirenean. Jendeak uste zuen herrialde demokrata bat topatuko zuela, baina bestelakoa izan zen. Herrialde faxista zela esaten zizuten».
Julia Monge, Intxorta 1937.

Frantziako Gobernuak errefuxiatuekin zama kendu nahi izan balu bezala jokatu zuen. Etorkinen profil politikoa deserosoa zen Frantziarentzat, gerran parte ez hartzeko eta bakearen aldeko apustua egin baitzuen. Gainera, gero eta ugariagoak ziren Franco babestu zuen Alemania naziaren erasoak.

Denboraren joanean, muga-politikak aldatu egin ziren gerratik eta errepresiotik ihes egiten zuten pertsonei zegokienez. 1936 eta 1937 urteetan errefuxiatuak jasotzeko jarrera irekia zuen Frantziak, Gipuzkoatik Behobiako eta Santiagoko zubietan zehar zetozenei, nahiz 1937an Bizkaiko eta Santanderreko portuetatik ihes egin zutenei harrera egiteko. Gerora, 1938an, gerra luzatzen ari zela ikusirik, *«Dadaliar eskuindarraren gobernu mugazonaldea eraikitzen saiatu zen Spainian, Frantziak eta Ingalaterrak diruz*

lagundutako errefuxiatuentzako harrera-kanpamendua eraikitzeko asmoz», azaldu du Nagore Sedano ikerlariak. Proiektua sekula martxan jarri ez bazen ere, neurri zorrotzak ezartzen hasi ziren sartzeak galarazteko. Azkenik, 1939an hilabetez zabaldu zuten muga arrazoi humanitarioak zirela eta: «Lehenik, urtarilaren 27an, emakumeak, haurrak, nagusiak eta gaixoak pasatzen utzi zituzten. Azkenean herritar guztiak pasa ahal izan ziren, harik eta otsailaren 20ean sartze masiboen aurrean muga itxi zuten arte» (Alted, 2008: 65- 67).

Frantziako gobernuaren lehentasuna errefuxiatuak aberriratzeari zen. Bigarren aukera gisa, jendea, bereziki militar izateko adina zuten gizonak, kontzentrazio esparruetan atxikitzea erabaki zuten. Kanporatu bitarteko neurria baino ez zen, hala ere. Emakumeek eta haurrek mugikortasunerako askatasun handiagoa izan zuten, baina kanporatuak izateko arriskua ere bazuten. Are gehiago, errefuxiatu asko mugara bortxaz eramanez, eta erregimen frankistaren esku utzi zituzten. (Alted, 2008).

Harrera bizipen ugari

Harrera-herrialdearen joera politikoek eta nazioarteko gertakarien bilakaerak Frantzian erbesteratutako herritarren esperientziak baldintzatu zituzten. II. Mundu Gerraren hasieran bereziki, baldintzak nabarmen zorrotzatu zituzten. Eskuinak eta eskuin-muturrak hala esaten zuen Espainiatik errefuxiatutakoez: «izurri gorria», «nazkagarriak», «zikinak», eta «[...] istorioak kontatzen zituzten [...], apaizak hiltzen eta mojak bortxatzen zituztela, etab.», azaldu du Víctor José López-Berrantesek, Irungo Nicolás Guerendiain elkarte errepublikanoko kideak. Hala ere, ezkerreko herritarrek elkartasuna adierazi eta bultzatu zuela uste du. Bertako erakundeek zein ekimen sozial, politiko eta erlijiosoek hartu zuten gero eta jende gehiagoren harreraren, elikaduraren, jantzien eta haurren hezkuntzaren ardura.

Askok kontatzen zuten ongi jaso zituztela: aterpeak antolatu zituzten, haurrak eskolatu zituzten eta behar zuenari arreta medikoa eskaini

zioten. Gainera, babesa eskaini zuten familien eta norbanakoek ekimena azpimarratzeko modukoak izan ziren: Morenok eta Ortuñok (2013:169) adierazi zuten, «*Frantziako herritar askok, gehienak ezkerreko alderdietako emakume militanteak, elkartasuna eskaini zioten errefuxiatutako komunitateari*».

Irungo Nicolás Guerendiain elkarte errepublikanoko kide Juncal Oiartzunek bere amaren kasua kontatu du: «*ez zuen sekula jakin nora joan ziren. Familia baten etxera joan ziren. Banatu egin zituzten, baina bazekiten non zegoen familia-kide bakoitza. Nire amaren kasuan oso ongi portatu ziren*». María Teresa Lasalle ere bere esperientzia onaz mintzo da Intxorta 1937koek bildutako testigantza honetan: «*Frantzian egon ginen sei urteetan, Ziburun. Ni eta ahizpa eskolara joaten ginen. Anaiek kontserbetan egiten zuten lan, antxoak eta sardinak potetan sartzen. Han atera nuen ikasketa-agiria*».

1937an, Frantziako Gobernuak hainbat diru-laguntza bultzatu zituen eta harrera-zentroak sortu zituzten. Hala ere, aterpe horiek ez zuten luze iraun, urte hartan bertan eraitsi baitzituzten. Hura izan zen, Carballesen hitzetan (2007:696), herritarren «*ezkutuko kanporatzea*», eta gerran zegoen herrialde batera itzuli behar izan zuten errefuxiatuak. Kanporaketa horrek «*nabarmen murriztu zuen euskal errefuxiatuen presentzia Frantzian*».

Instituzioek ere lagundu zuten euskaldunen erbesteko antolaketan eta biziraupenean. Bai Eusko Jaurlaritzak, baita Espainiako Errefuxiatuak Ebakuatzeko Zerbitzua (*Servicio de Evacuación de Refugiados Españoles*, SERE) eta Errepublikano Espainiarrei Laguntzeko Batzordea (*Junta de Auxilio a los Republicanos Españoles*, JARE) elkarteek laguntza eskaini zieten. Hainbat diru-laguntza eman zituzten, Eusko Jaurlaritzak, adibidez, aterpeak antolatu zituen Frantzian eta milaka lagun aterpetu zituzten. II. Mundu Gerra hasi zenean, ordea, Frantziako Gobernuak beretzat hartu zituen zentro horiek «*Sarretik, Alsaziatik eta Lorenatik zetozen tropei eta errefuxiatu frantsesei babes emateko, ordurako asko baitziren*» (Carballés, 2007: 697).

1939 urtetik aurrerako harrera-politika: kontzentrazio-esparruak

Frantziak errefuxiatuekiko izan zuen politiken alderik ankerrena, zalantzarik gabe, kontzentrazio-esparruetan atxikitzea izan zen. Argelès-sur-Mer herrikoa izan zen ezagunena, zeina 1939an jarri baitzuten martxan. Ia milioi erdi lagunek La Junquera eta Portbouko Pirinio-bideetatik zeharkatu zuten muga, eta horrenbestez, Frantziak muga zabaldu behar izan zuen. Urte hartako otsailean, milaka lagun sartu zituzten esparruan. Burdin-hesiz inguratutako hondartza bat baino ez zen. Bertako baldintzak jasangaitzak ziren: ez zegoen urrik, ez komunik, ez mediku-arretarik, ez ia jatekorik eta bertan zirenek eraiki arte, ez zen babesik hartzeko barrakoirik ere. Lekukoen arabera, jendeak zuloak egiten zituen harean, bertan sartu eta hotzetik babesten saiatzeko.

1937 eta 1941 urteen artean, 100.000 bat lagun igaro ziren hondartza horretatik. Bizirik irteerako batzuek bertan armadaren zaintzapean bizitako izua kontatu dute: tratu txarrak, zigorrak, azpinutrizioa, tuberkulosia, disenteria, sarna, pneumonia, lan penagarriak. Horiek denek askoren heriotza eragin zuten, baita ehunka haurrenak ere.

Handik gutxira, Frantziako Gobernuak hainbat esparru eraiki zituen herrialdean zehar: Argeles-sur-Merretik igarotako gizonak Saint-Cyprien eta Le Barcarès esparruetara bidali zituzten, lehenengotik hurbil zeudenak. Emakume, haur eta adineko pertsona batzuk ere handik pasa ziren. Gehienak baina, deportatu edo herrialdearen erdialdera edo ipar-mendebaldera bidaltzen zituzten, erakunde sozial, sindikal eta erlijiosoek har zitzaten, edo etxe partikularretan babesa eman ziezaiten.

Argelès-sur-Merren izandako presoak, besteak beste, Gursera bidali zituzten, Biarnoko eskualdean, Zuberoatik kilometro gutxira. Milaka lagun euskaldun atxiki zituen bertan Frantziako Gobernuak. Ezin izan zituen Iparraldera eraman, «*Garai hartan Ipar Euskal Herria oso eskuindarra zelako. Eskuin-muturreko diputatuak. Iparraldeko euskal herrietan ez zieten harrerarik*

egin nahi izan, bortxatzaile, kriminal eta baliogabeko gisa aurkeztu zituztelako», azaldu du Emilio Vallés Gurseko L'Amicale du camp elkarteko kideak. Hain zuzen ere, Frantziako Gobernuak errefuxiatu «gorriez» libratzeko aberriratu edo hirugarren herrialdeetara bidali zituen. Hartara, 1939ko udatik aurrera, euskal herritarrek kontzentrazio-esparruetatik pixkanaka ateratzea eragin zuen.

Frantzian bizirautea

Frantzian erbesteratuta izan ziren gehienek egoera-ekonomikoa urria eta prekariora izan zen. Bizirauteko eta familia mantentzeko emakume errefuxiatuek ahal izan zutena egin zuten: etxeak garbitzen zituzten, batez ere; jornalari gisa, fruta jasotzen edo josten ere ibili ziren. María Teresa Lacallek azaldu du Iparraldean egon ziren bitartean bere amak lan egin zuela *«sukaldeak biltzen, eskailerak garbitzen, denetarik egiten. Zerua goian eta lurra behean besterik ez genuen»*.

Emakumeek zaintzaren alorrean egindako lana ezinbestekoa izan zen langile-klaseko familientzako. Horrez gain, Morenok eta Ortuñok (2013) hala ondorioztatu dute: emakumeek etxeko lanetan heziketa zuten, eta horri esker, familien biziraupenerako paper protagonista lortu zuten hasieratik. Izan ere, beren aitek eta senarrek baino lehenago topatu zituzten lanak alor horretan, eta horrenbestez, familia barruko harremanak aldatu eta emakumeen autopertzeptzioa hobea izan zedila ahalbidetu zuen.

Bestetik, II. Mundu Gerra 1939ko irailean hasi zenean, frantziarrek frontera joan ziren. Errefuxiatuek hartu zituzten hutsik utzitako postu horiek. Merke arituko ziren langileen beharra zenez, lan-baimenak eman zituen Frantziak. Iheslariak egurgile lanetan, mehatzeetan edo Frantziako armadaren langile-batailoietan aritu ziren. Orduan, Josu Chueca ikerlariaren arabera, *«[aldatu egin ziren] Barne Ministerioak 1939an bidaltzen zituen jarraibideak.*

Espainiara ez itzultzeko eta [kontzentrazio] eremuetatik ez botatzeko agindu zuen. Lanik ez zutenak ikazkin, okin, armadan eta abarretan sartu zituzten».

Funtsean, jendeak ahal zuena eta utzi ziotena egin zuen. Baina Frantziako baldintzak gogorrak ziren, eta gehienak etxera itzuli ziren zer topatuko zuten oso ongi jakin gabe. Beste batzuk Frantzian geratu ziren, harik eta Atlantikoa zeharkatu ahal izan zuten arte. Bertan leku seguru bila eta baldintza hobeetan bizitzeko irten ziren.

Mexikora ihes egitea

«Gure amak urteetan ez zekien aita bizirik zenik, ez baitzuen haren eskutizik jasotzen. Bordelen zegoen. Sukaldari laguntzaile sartu zen eta kozinatzen ikasi zuen. Anaia bat zuen Boisen eta bertara joateko esan zion, aukerak bazirela, artzain gisa aritzeko zen baina ondo ordainduta zegoen.

Nire aita baina, han ez zegoen ondo, ezin zuen hizkuntzarekin eta Mexikora joan zen. Gainera, ezagunak zituen han, osaba bat [...].

Eta jatetxea muntatu zuen Chihuahuan, gero hotela, eta denok egin genuen ihes».

Miren Arruti

«Mundu guztiarentzat erbestea munduko gauzarik tristeena zen... eta denek zuten maleta ohe azpian, Franco noiz hilko zain, maleta hartu eta Espainiara itzultzeko. Baina asko Franco hil baino lehenago hil ziren eta ohe azpian geratu ziren maletak».

Norte Salvaje, 2021^[3]

.....
[3] *Norte Salvaje* dokumentaletik ateratako testigantzak. Al Borde films etxeak egin zuen filma CEAR-Euskadirentzat proiektu honen harira.



Gerraren lehenengo aldian, 1936 eta 1937 urteetan, ihesaldi masiboak izan zirenean, Euskal Herriko hiriak hustu egin ziren. Askoren ustez, itzulera hilabete kontua izango zen. Baina gerra bukatu zen, matxinoek bando errepublikanoa garaitu zuten, eta hortaz, asko ez ziren itzuli erregimen frankistaren beldurrez.

Frantzian, II. Mundu Gerrak iheslarien bizi-baldintzak gogortu bazituen ere, itxaropena ere sortu zuen: aliatuen garaipenak frankismoaren kontrako interbentzioa ekarriko zuen, eta beraz, itzultzeko aukera ere bai. Aitzitik, aliatuek Francoren diktadura nahiago zuten Espainian ezkerreko demokrazia baino, eta errefuxiatuen itzultzeko desira guztiz eraitsi zuten. Askok 30 urte beranduago itzultzeko aukera izan zuten. Beste batzuk ez ziren sekula itzuli.

Itzulera ez zen oso edo batere segurua, eta alternatiba bilatu behar izan zuten, Frantziako egoera gero eta penagarriagoa baitzen. Hala, Latinoamerika helmuga desiragarri bihurtu zen. Mexiko izan zen iheslari errepublikanoak jasotzearen aldekoen zegoena eta Frantziatik lagun gehien hartu zituenena. 1937rako eta 1938rako jada jendea abiatu zen hara. Horien artean haurrak zeramatzaten itsasontziak ziren, «*Moreliako haurrak*» izendatu zituzten umeok. Baina ebakuazio masiboak II. Mundu Gerraren lehen urtean hasi ziren. Mexikoko portuek babes bila ziren 20.000 lagun hartu zituzten.

Mexikorako bidaia

Mexikoko Gobernuak errefuxiatuak hartzeko konpromisoa hartu zuen. Bidaia- eta instalazio-gastuak, berriz, Errepublikaren gobernuak hartu behar izan zituen beregain. Hala bada, Mexikora joateko baliabide ekonomikoak edo SERE eta JARE elkarteek laguntza behar ziren.

Ipanema, Sinaia eta Mexique izan ziren Frantziatik 1939an irten ziren aurreneko itsasontziak. Hiru espedizioen artean 5.000 lagun eraman zituzten. 1940ean, azken ontzi bat atera zen Bordeleko portutik, Alemaniako tropek hiria hartu baino lehentxeago. Cuba izena zuen, zeina ezagunak ziren politikariz beteta joan baitzen, komunistak eta anarkistak batez ere, nazien aurrerapen arriskutsuaren aurrean ihes egin zutenak (Velázquez Hernández, 2012: 361).

Ana María Ruizek, Cecilia García de Guilarte idazle anarkista tolosarraren alabak, gurasoek itsasontzi hartan alde egin zutela kontatzen du: *«eta haiek Cuba ontzian irten ziren, azkenengoan. Baina ez, ez zuten nahi. Baina kontua da han, Narbonan, alkateak berak kanporatu zituela “alemaniarrek etorri behar direlako, eta ez dudalako konpromisorik nahi, ez dut erantzukizunik izan nahi”».*

Mexikoko Gobernuak uko egin zion ontzi kolektiboak jasotzeari. Batetik, II. Mundu Gerraren arriskuengatik, eta bestetik, Mexikon lehen kontingenteak jasotzeak sortu zituen zailtasunengatik (Velázquez Hernández, 2012: 89). Horren ondorioz, Cuba ontzia Dominikar Errepublikara abiatu zen. Ordurako jasoak zituen beste itsasontzi batzuk. Hala ere, orduko presidente Rafael Trujillok errefuxiatutako lagun bakoitzeko depositua eskatzen zuen eta SEREk arazoak zituen hura ordaintzeko. Gainera, *Cuba* ontziak zuen esanahia politikoaren ondorioz, Dominikar Errepublikak uko egin zion haren lurreratzeari. Itsasontzia Martinikara joan zen. Bertan zain izan zen itsasontzia errefuxiatuen aldeko erakundeek Lázaro Cárdenas presidentearekin adostu, eta Mexikon sartzeko onarpena lortu zuen arte. Garai eta bidaiaria hartako ziurgabetasuna Ana María Ruizen hitzek ondo adierazten dute: *«45 egun egon ziren harrera egingo zieten jakin gabe [...] bueltaka».*

Hura ez zen izan oztopo ugariri aurre egin behar izan zion ontzi bakarra. 1941ean, *Alsina* lurruntzia Marseillatik irten zen, iheslari euskaldunak eta espainiarrez gain, Frantziako, Herbehereetako, Alemaniako eta Europako beste herrialdeetatik etorritako juduekin. Arazo burokratikoaren kariatara, bost hilabetez egon zen geldirik ontzia Dakarren, harik eta iheslariak beste ontzi batera, *Quanza* izenekora, aldatu zituzten arte. Horrek Veracruzera (Mexiko) eta Habanara (Kuba) eramane zituen errefuxiatuak.

Mexikora joan zirenak

Gizartearen lagin zabala batek ordezkatu zuen Mexikon errepublikanoen erbestea. Hala ere, narratiba nagusiak adierazten duen bezala, zati handi bat osatzen zuten profesional liberalek, irakasleek, intelektualek eta artistek. Gehienak erregimen frankistaren amaierara arte han geratu ziren.

Euskaldunek Argentinan eta Venezuelan bilatu zuten babes, gehien bat, euskal jatorriko komunitate handienak han zirelako (Zabala, 2006: 345). Mexikon ere izan ziren, neurri txikiagoetan. Zabalak (2006) adierazi du eginkizun intelektualetan aritzen ziren emakume euskaldunak % 10 inguru zirela. Gehiago ere izan zitezkeela azpimarratu du, baina balitekeela ahaztuak izatea. Horietako batzuk Estatu-kolpea baino lehen politikan aritutakoak izan ziren: Cecilia García de Guilarte edo Alesbeseko Julia Álvarez Resano eta Sestaoko Aurora Arnaiz sozialistak.

Beste askok diktadurak iraun bitartean egin zuten ihes Espainiatik Mexikora. Errepresioari ihesi egiteko ez ezik, familia berriz elkartzea helburu zuten lekualdaketak ere egon ziren. Mirren Arrutiren eta Julen Ruiz de Azuaren kasuak adibidera: 1952an Marqués de Comillas izeneko ontzian bidaiatu ziren. Bien gurasoek aspaldi egin zuten ihes, gerra bitartean. Familiako beste kideak pixkanaka joan ziren harat, berau egiteko baldintza ekonomiko nahikoak izan zituztenean. Mexikora heltzearekin batera, gurasoak «ezagutu» zituzten eta erabateko aldaketa izan zen haien bizitzetan. Hala kontatzen du Mirenek: *«14 urterekin utzi nituen herria, lagunak, aitona-amonak, dena. Amarekin bidaiatu nintzen eta nire hiru anaia-arrebak urtebete beranduago etorri ziren. [...] Veracruzeko portura heldu eta hura nire aita zela esan zidaten. Hala esan nuen: “ondo, urte askoan”. Niretzako beste edozein zen. Baina Chihuahua heldu, eta nire anaia-arrebak ikusi nituenean, bizitza eman zidan horrek. Hortik aurrera, pixkanaka maitatzen hasi nintzen. Gero ez nukeen inorengatik aldatuko, baina urtebete inguru kostatu zitzaidan zaintzen nuen ahuntzaren falta sumatzea».*

Mexikoko erakundeen harrera

«Iritsitakoan nazionalitatea, errespetua eta bizibidea ematen zizkizuten. Mexikori asko diogu eskertzeko».

Miren Arruti

Mexikoko Gobernuak uko egin zion Francisco Francoren Gobernua aitortzeari, eta Errepublikaren alde agertu zen hasieratik. Horren adibide argia da

errefuxiatuei eskainitako elkartasunezko harrera-politika. Hizkuntza bera izatearen abantailaz gain, ezinbesteko hainbat neurri politiko hartu zituzten, hala nola, errefuxiatuak bertakotzeko bost urteko bizilekuaren baldintza bete behar ez izatea (eta herritartasun bikoitzari eutsi ahal izatea, itzultzeko itzaropenez). Eskubide osoko jarduera bermatzen zuen horrek, baita lanerako eskubidea ere. Gainera, errefuxiatuek euren lan-titulazioak balioztatu ahal izan zituzten, eta beraiek sortutako eskoletan haurrak hezi. Bilbao eskola adibidez, errepublika-izpiritua eta jatorrizko identitatea mantendu zituena.

Errefuxiatuei harrera egiteko politikak ere gatazka sortu zuen ordea. Batetik, jende kopuru handi bat jasotzearen arazoak planteatu zituzten. Bestetik, Mexikoko ekonomian txertatzeko langileen profila zalantzan jarri zuten: Gobernuak interesa zuen lehen sektoreko langileei babesa eman, eta biztanle gutxiko eremuetara bideratzeko. Baina, kontrara, iritsi ziren errefuxiatuen profilak talka egin zuen gobernuak zuen nahiarekin, hiri-eremuetatik etorritakoak eta beste profil batekoak baitziren.

Mexikon erbesteratutako komunitatearen biziraupen ekonomikoa eta osaera

Erbestean jende askok diru eskasia bizi izan zuen. Maila oneko jendeak eta ondoen prestatuta zeuden gehienek haien bizi-baldintzak okertzen zirela nabaritu zuten. Ezinbestekoa izan zen erakunde errepublikanoen laguntza zerotik hasi ahal izateko. Besteak beste, aterpetxeak, diru-laguntzak edo interbentzio medikoak jarri zituzten martxan. Lanari lotutako hainbat ekimen ere bultzatu zituzten eta arrakasta-maila desberdinak izan ziren (Chueca, 1999).

Oso garrantzitsua izan zen erbesteratutako euskaldunen ekonomiarentzat gerra aurretik Mexikora joandako komunitate espainiarraren ondorengoek emandako laguntza. Familia batzuek, bereziki herrialdearen iparraldean kokatzen zirenak, negozio handien jabeak ziren eta jende askori lan eman zieten, ideologiak-ideologia, beste modu batera ezingo baitzuten biziraun.

Errefuxiatuen komunitatea bera ere ezinbestekoa izan zen iristen zirenen ekonomia-biziraupenerako. Julen Ruiz de Azúak azaltzen du etxean bazituztela *«sei gela-edo, etortzen zirenei, lana bilatu bitartean, harrera egiteko. Horretan laguntzen genituen, etxebizitzarekin. Asko zen, izan ere, iritsi eta ez izatea non... Gero, pixkanaka, orientatzen ziren, eta nork bere lana topatzen zuen»*.

Bizitzaren prekarizazioa bestera izan zen emakumeengan, izan ere, gehienek beren buruak behartuta ikusi zituzten egunerokotasuna antolatzen eta egituratzen eta familien biziraupena ziurtatzen. Langile-klaseko emakumeak jardura informalean aritu ziren, batez ere, etxeko-etxeko jostetan. Hala deskribatzen du Ana María Ruizek: *«ehuntzen aritzen ziren, haurrentzako jantziak egiten zituzten euren etxeetan. Askok berralokatutako gelak zituzten, etxea alokatzen zuten eta logelak errefuxiatuei alokatzen zizkieten. Holako asko zegoen. Emakumeek lan egiten zuten: zapatatxoak, txaketatxoak, soinekotxoak, horiek guztiak»*.

Emakumeen rol hura funtsezkoa izan zen erbesteko eguneroko bizitzaren eta zaintzaren berrezarpenarako. Hala ere, askok uko egin zioten beren ibilbide-politiko eta ideologia-asmoari (Domínguez Prats, 2009). Profil intelektualeko emakume ugari, bestalde, beren karrera garatu ahal izan zuten alor akademikoan, editorialean edo artistikoan, María Luisa Elío idazle nafarra kasu. Baina gehienak soldatarik gabeko zaintza lanetan aritu behar izan ziren (Moreno, 2011). Halakoetan, deserriratzea geografikoa ez ezik, etxekoa ere izan zen. Era berean, balio errepublikanoetan eta aurrerakoietan identifikatzen ziren emakumeentzat, zeinak ohiko gizarte-arauetatik harago proiektatzen baitziren, erbesteko bizitzak askatasun eta aukera ekarri zen. Horren adibide da Mexikon emakumeen bozka-eskubide ez zela 1955era arte legeztatu.

Gizartearen harrera Mexikon

Oro har, Mexikora joandakoen testigantzak esker onekoak dira gizartearen partetik jasotako harrerarekin. Aitzitik, ez zen beti harrera ona izan. Batetik, talde ultrasosialistek edo ultrakatolikoek haien etorrera errefusatu zuten,

«ezkerreko» mehatxua zirelakoan. Horien artean zeuden aurretik Euskal Herritik eta Espainiatik joandako migratzaileen ondorengo taldeak, jatorriz karlistak edo frankistak zirenak. Adibidez, Julen Ruiz de Azuak, *Euzko Deya* aldizkariko zuzendariaren semeak, adierazi du «*nafarreko, euskal etxea sortu zutenek, gure gurasoak bezalako errefuxiatuak iritsi zirenean, ez zituzten zentroan onartu nahi izan...*».

Gainera, Mexikoko hedabideen parte batek langile kanpotarren harrera kritikatu zuen, bertakoekin lehiatuko zirelako. «*Errefusa adierazteko manifestazioak, errefuxiatuen etorreraren aurkako panfletoak banatzeko eta Merkataritza eta Industria Ganberen Konfederazioa bezalako erakundeen jarrera [...]*» antolatu zituzten (Pérez Vejo, 2017: 178).

Hasieran, akademiako sektore indigenek etorkinak errefusatu zituzten, komunitate errepublikano intelektualari ematen zitzaion aldeko tratua izaera (neo)kolonialetako politika bati zegokiola uste baitzuten (Sedano, 2019). Hain zuzen ere, gizartearen eta erakundeen arrazakeria, kolonialismo espainiarraren oinordetzan jaso, nagusi zen herrialdean. Beraz, posizio politiko antikolonialak erbesteratutako sektorearen harreraren aurka azaldu ziren, hein handi batean, patroi bera erreproduzitzen zuelako. Julen Ruiz de Azuaren hitzetan, «*gu iritsi aurretik, lehen urteetan, irailaren 15ean [Independentziaren jai egunean] ez ateratzen saiatzen ziren. [...], borroka asko egongo ote zelakoan*». Baina era berean, euskaldunek ezberdintasun horri probetxua atera zioten. Julenek berak azaltzen du: «*euskaldun izatea, langile gisa, bermea zen. Konfiantza handia hartzen zieten*», «*[...] hain zuzen, euskalduna mexikarraren gainetik hartzen zuten beti. Baita Espainiako beste eskualde batzuetakoak ere: asturiarrak...*». Miren Arrutiren familiak jatetxe-hotela jarri zuen Chihuahuan eta hauxe erantsi du: «*klase ertainetik beherako jendeak haiek baino maila bat gorago ikusten zintuen, eta erreberentzia egiten zizuten zerbait esaterakoan. Klase ertaineko jendea, antzera*».

Mexikoko erbestearen izaera masiboak eta harrera-baldintzek ahalbidetu zuten komunitatea maila desberdinetan antolatzea. Politikaren alorrari dagokionez, erbesteko Errepubliako Gobernuak egoitza izan zuen Mexikoko

Barruti Federalean, Mexikoko hiriburuan, harik eta 1946. urtean Parisera aldatu zuten arte. Baina, gainera, hainbat erakunde politikok urte luzez funtzionatu zuten, hala nola, Espainiako Emakumeen Batasunak (*Unión de Mujeres Españolas*, UME), izaera komunistakoa eta Frantzian ere funtzionatu zuena. Beste plano batean, erbesteko komunitateek hezkuntza-erakundeak eta eskualde-zentro ugari sortu zituzten, eta haien inguruan biltzen eta erlazionatzen ziren, ia-ia ghetto kulturalak osatuz. Jende askok hamarkadak eman zituen han laster itzuliko zirelakoan. Mexikoko Espainiako Ateneoaren kide Joseba Bujek laburtu moduan: «[...] *jende asko pasa zen Mexikotik, Mexiko haiengandik pasa gabe*».





Iraganetik orainaldira

Euskal Herritik Frantziara eta Mexikora ihesi joandakoek zeharkatu behar izan zituzten mugek, lehorrekoek zein itsasokoek, leku berean jarraitzen dute. Hala ere, zenbait zentzutan, muga horien formak aldatu egin dira, eta aldatu dira baita ere muga horiek zeharkatu nahi dituztenen pertsonak kontrolatzeko sistemak. Migrazio-mugimenduak erregulatzen dituzten beste arau batzuk ere eman dira, nazio- eta nazioarte-mailan. Trantsizio horretan, funtsezko aldaketa izan da pertsonen eskubideak aitortzen dituzten nazioarteko itun nagusiak onartzea, gizaki izate hutsagatik eta edozein dela ere herritartasuna, hala nola Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, edo, herrialde-mailan, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmena edo Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa.

Errefuxiatuen alorrean, funtsezko aurrerapena izan da nazioarte mailan Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren onarpena, 1951n, artean existitzen ez zena Espainiako Estatuko lehen ihesak hasi zirenean, 1936an. Konbentzioa Bigarren Mundu Gerraren ostean onartu zen, hain zuzen ere, babesa emateko 1951ra arte Europan erregimen totalitarioen jazarpena eta gerraren hondamendiak pairatu zituzten pertsonen. Geroago, 1967an, Protokoloa onartu zen, errefuxiatuen esparrua Europatik haratago zabaltzen duena, eta baita Hitzarmenaren onarpen dataren denbora muga ere; hala, beren herrialdetik ihes egiten duten pertsona guztiei —arraza, erlijioa, nazionalitatea, talde sozial jakin batekoa edo iritziz politikoak direla eta— nazioarteko babesa emateko estatuek duten betebeharra modu zabalean ezarri zen. Era berean, errefuxiatu aitortzea eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonentzat ere, Konbentzioak non *refoulement* edo ez-itzulketaren printzipioaren babesa kristalizatu zuen, zeinak eragozten duen estatuek beren mugetan edo lurraldeetan dauden atzerritarrak kanporatzea, eta haien bizitza, askatasuna edo osotasuna arriskuan jarriko dituen leku batera eramatea.

Eskubide eta berme sorta zabal hori guztia, gaur egun legez aitortua eta estatuei nazioarteko betebeharrak ezartzen dizkiena, ez zen existitzen euskaldunak Behobia eta Santiagoko zubiak gurutzatzera behartuta zeudenean, ezta Ozeano Atlantikoa zeharkatzeko bidaia luzeak egin behar zituztenean ere. Hala ere, zeharkatu behar zituzten mugek bertan jarraitzen dute. Izan ere, baieztza dezakegu muga horiek beren esparrua zabaltzeko eta segregazio-efektuak areagotu dituztela, azpikontratazioan, militarizazioan eta migrazioen kontrolaren pribatizazioan oinarritutako estatu-politiken bidez. Politika horien artean nabarmentzekoak dira, bereziki, migratzaileen eta errefuxiatuen joan-etorria kontrolatzeko estatuen artean egindako akordioak; hala, jatorriko eta igarobideko herrialdeak arduratzen dira "nahi ez dituzten" pertsonak helmugako herrialdeen mugetara ez iristearaz.

Iragana eta oraina alderatuta, Euskal Herriko, Frantziako edo Mexikoko mugetan asimetria asko antzeman ditzakegu, baita haiek zeharkatzen dituzten migrazioetan ere. Ezberdintasun nagusia da, gaur egun, erbestera behartutako pertsonak ez direla berdinak. Bestelako testuinguruetatik datoz, beste gatazka batzuetatik eta beste gerra batzuetatik. Era berean, ihesa eragiten duten jazarpen-beldurrak hainbat egoeratan oinarritzen dira, egiturazko indarkerietan funtsatuak; indarkeria horiek lotuta daude pobrezia ekonomikoarekin, sistema heteropatriarkalaren indarkeria fisiko eta psikologikoekin, genero-desparekotasunekin, feminizidioekin, homofobiarekin, transfobiarekin, gorroto-diskurtsoekin, hondamendi naturalekin, klima-aldaketarekin, egoera zaurgarrienetan dauden pertsonak eta gizarte-taldeak babesteko bermerik ematen ez duten estatuen sistema politiko ustelarekin.

Euskal Herriaren kasuan, migrazio-mugimenduek norabidea aldatu dute. Euskal biztanleek ihes egin zuten lurraldea helmuga bihurtu da, leku seguru bat aurkitzeko itxaropena berpizten duen lurraldea. Era berean, hainbat jatorriko jendea iristen da Mexikoko mugetara, batez ere Erdialdeko Amerikako iparraldeko eta inguruko herrialdeetatik. Pertsona horietako askok Mexikoko lurraldea igarotzen dute, AEBetako mugara heltzeko asmoz.

Espainiako Estatua askoz urrunagotik eta errealitate anitzetatik zeharkatu dutenentzat, Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdetatik datozenentzat —hala nola Ginea Conakry, Boli Kosta, Mali edo Senegal— Bidasoa ibaia da hurrengo jauzia, Irun eta Hendaiaren arteko mugan. Ceuta eta Melillako hesietatik salto egin ondoren, edo Ozeano Atlantikoko eta Mediterraneo itsasoko uretan nabigatu eta hondoratu ostean, beren asmoa Frantziara iristea edo Europa erdialde eta iparralderako bidean jarraitzea da. Atzo erregimen totalitarioen menpe edo gerrak suntsituta zeuden herrialdeetara zuzentzen dira beren urratsak; atzo erbestea eragiten zuten lekuak ziren, eta gaur egun asilorako itxaropena eragiten duten herrialdeak dira.

Hala, atzo erbestera ihes egitera behartutakoek, gaur egun, eskua luzatu eta elkartasun sareak ehuntzen dituzte, errealitate desberdinek behartutako hainbat jatorritako pertsoneri igarobidean laguntzeko, duela urte batzuk eurek zeharkatu zituzten muga berberetatik mugitzen diren pertsonak hartzeko, alegia. Eta horrela, iraganaren eta orainaren artean, alde batetik eta bestetik, erbesterako eta babeserako bideak zeharkatzen ari gara kolektiboki, ibilbide bereko bi joan-etorri bezala, guztion artean eraikitzen dugun historiaren bilakaeran airean biraka jarraitzen duen txanpon beraren bi aldeak.



Mexiko gaur egun zeharkatzea

Mexiko da Latinoamerikan migratzaileek eta errefuxiatuek gehien igarotzen dute herrialdeetako bat, Erdialdeko Amerikako iparraldeko herrialdeetakoek batez ere. Giza eskubideen aldeko antolakundeek urte asko daramatzate bide honen arriskuaz ohartarazten, azken urteotan migratzaile eta errefuxiatu asko hil edo desagertu baitira bertan. AEBen eta Mexikoren arteko mugako eskualdea kontinenteko hilgarriena da, Nazioarteko Migrazio Erakundeak (jatorrizko siglak gaztelaniaz, IOM) guztira 2.403 hildako erregistratu ditu 2014az geroztik. 2019an, 497 biktima egon ziren. Dena den, datu horrek ez du islatzen bidean desagertu diren pertsonen kopurua. Pertsonak Bilatzeko Batzorde Nazionalak (*Comisión Nacional de Búsqueda*, CNB, 2020) egindako hobi klandestinoei buruzko txostenak eta desagertutako pertsonen erregistro nazionalak adierazten dute 1960ko hamarkadatik 2019ko abenduaren 31ra arte, 147.033 pertsona desagertu zirela; horietatik 60.053 pertsona 2006-2019 urteen artean desagertu zen. Ibilbidearen arriskugarritasuna areagotu egiten da mugak eta estatuak sekuritizatzearen aldeko migrazio-kontrolerako politiken ondorioz, pertsonen eta haien eskubideen segurtasunaren aurka.

Irtetea

*« Ez nuen norabide argirik...
Segurtasuna nahi nuen; leku seguru batera iritsi nahi nuen,
bertan berriz ere hasteko».*

Hondurasko gizon migratzailea, Mexikotik igarobidean

Mexikotik igarotzen diren pertsona asko Erdialdeko Amerikako iparraldeko herrialdeetatik datoz: El Salvador, Guatemala eta Hondurastik. UNHCR-ren datuen arabera (2020: 30), hiru herrialde hauetako pertsonen desplazamenduak ia 50 aldiz hazi dira azken hamar urteotan (2011ko

amaieran 18.400 izatetik 2020ko amaieran 867. 800 izatera). Mundu mailan, hiru herrialde horietako herritarrek aurkeztu zituzten 2020. urteko asilo-eskaera berrien % 12. Gehienak AEBetara (423.700 pertsona, % 79) eta Mexikora (78.600, % 14) joan ziren, eta soilik % 5 Europara (25.900), 15.400 Espainiara eta 4.600 Italiara. Datu hauek irakurtzerakoan, garrantzitsua da kontuan hartzea herrialde horien lurralde-dimentsioa eta biztanleria^[4]. Halaber, garrantzitsua da ez ahaztea urtez urte hazi egiten dela munduko desplazamendu behartuen kopurua; 2009an 43,3 milioi desplazatu izan ziren, eta 2020an 82,4 milioi.

Azken urteotan, hazi egin da ere Kuba, Venezuela, Haiti eta Afrika Mendebaldeko herrialdeetatik etorritako pertsonen kopurua, nazioarteko babesaren premiarekin Mexikora eta AEBetara iritsi direnak. Afrikarren kasuan, Brasil izan ohi da Amerikara sartzeko lehen puntua; hara doaz lan bila, iparralderako bidea jarraitzeko beharrezko baliabideak lortzeko asmoz. Pertsona horien migrazio-proiektuek urte asko iraun dezakete. Amerikan zehar mugitzen den biztanleriaren jatorri-aniztasuna ez da fenomeno berria, baina ikusgarriagoa bihurtu da AEBek eskualde osoan bultzatutako mugen militarizazio politiken ondorioz.

Giza eskubideen aldeko erakundeek nabarmendu dutenez, Erdialdeko Amerikako pertsonen kasu gehienetan alde egiteko arrazoiek lotura dute eskualdean nagusi diren indarkeria egoera larriekin, intzidentzia berezia dutelarik Hondurasen eta El Salvadorren.

Errefuxiatuen Laguntzarako Mexikoko Batzordea (*Comisión Mexicana de Ayuda a Refugiados*, COMAR, 2021) arduratzen da herrialdean nazioarteko babeserako eskaerak bideratu eta ebatzez; COMARen arabera, 2020an 41.059 asilo-eskatzaile iritsi ziren Mexikora (28.075 kasu, familia-unitateak kontuan hartuta). Zifra horrek adierazten du beherakada egon dela aurreko urteetako dinamikekin alderatuta, eta pandemiaren testuinguruan du zergatia;

[4] Eskura dagoen azken erroldaren arabera, Guatemalan ia 15 milioi biztanle zeuden, Hondurasen 9 milioi eta El Salvadorren 6 milioi.

hala gertatu da ere munduko beste eskualde batzuetan. 2021eko urtariletik irailera 90.314 pertsonak eskatu zuten nazioarteko babes. Oraindik ere Honduras da migratzaileen jatorrizko herrialde nagusia, denbora tarte horretan 30.894 pertsonara iritsita, alegia, 2019. urte osoko zifrak gaitututa. 2020az geroztik, Haiti bihurtu da migratzaileen bigarren jatorrizko herrialde nagusia, 20.007 eskatzaile zenbatuta. El Salvadorrek 2019an egon zen postu horretan, eta gaur egun, Kubaren ostean, migratzaileen jatorrizko laugarren herrialdea da; izan ere, irailaren amaieran bertako 5.170 asilo-eskatzaile iritsi ziren, goranzko joera berreskuratuz. Mexikora eta AEBetara errefuxiatuak bidaltzen dituen herrialde nagusien artean jarraitzen du ere Guatemalak, 2021eko zenbatutako hilabeteetan 3.564 eskatzailera iritsi baitzen, hau da, 2019ko ia kopuru bera.

2021eko irailera arteko joerak adierazten du berreskuratu eta handitu egin direla pandemiaren aurreko Erdialdeko Amerikako exodoaren zifrak. Haiti eta Kubako pertsonen etorrera nabarmenak estatistikak berrezarri ditu, baina etengabekoa da Honduras, El Salvador eta Guatemalatik ihesi doazen exodoa.

2018an COMAREk adierazi zuen honako hauek zirela Mexikon babes-eskaerak egiteko arrazoi nagusiak: giza eskubideen urraketa masiboak, barne-gatazkak, indarkeria orokortua, LGTBI kolektiboko kide izatea, iritzi politikoa edo oposizioko kide izatea, familia barruko indarkeria, delinkuentzia arrunta, ingurumen-arrazoiak, arrazoi pertsonalak eta zehaztu gabeko diskriminazioa. Geroztik, okerrera egin du eskualdeko egoerak.

«Gehienak Erdialdeko Amerikako indarkeria orokorretik ihesi doaz, batez ere Hondurasetik, pobrezia estrukturaletik, krimen antolatutik, genero indarkeriatik eta baita indarkeria politiktik ere –gutxien ikusarazten dena izan arren–. Horixe da Nikaraguaren kasua da, adibidez» (Mariana Zaragoza, migratzaileen giza eskubideen defendatzailea Mexikon).

«COMAREk langile gutxi ditu eta aurrekontu txikia du. Organo honen ahulezia instituzionala islatu egiten da indarkeria instituzionalean, babes-eskatzaileen eskubideen urraketan. Ez dago aurrekontudun politika publikorik

asilo-eskatzaileak Mexikon gizarteratzen laguntzeko, ezta politika laboralik, ez sozialaiek, ez familiartekorik; ez dago ezer. Pertsona batek Mexikon asiloa eskatu eta eskaera onartzen badiote, ez du beste ezer izango; ez dago harrera instituzionalik, ez bizilekurik, ezta hezkuntza edo osasun zerbitzuak eskuratzerik ere. Erakunde horretan oso pertsona errespetagarri eta konprometituak daude; ez da borondate txarragatik, baizik eta administrazio publikoak ahaztutako erakundea delako» (Alberto Xicotencatl, El Saltillo migratzaile-etxeko zuzendaria).

Zaugarritasun egoera areagotu egiten da hainbat adineko emakumeen —neskato, nerabe— eta LGBTBI pertsonen kasuan. Indarkeria heteropatriarkalaz, gorroto delituez eta ingurune sozialak gauzatutako diskriminazioaz gain, hor daude ere pandilla direlakoan kriminalitatea eta estatuen babes-bermerik eza. UNHCR-ren datuen arabera, batez ere neskatoek eta emakume gazteek jasaten dituzte pandilletako kideen sexu-indarkeria (2020: 34). Era berean, bakarrik dauden haurren egoerak babesgabe uzten ditu *mara* direlako taldeen aurrean, erreklutamendu behartuaren objektu bihurtzen dira eta delitu-jardueretan parte hartzera behartzen dituzte.

Eskualdeak feminizidio-tasa handiak ditu: El Salvadorren, kasu horien % 70 adingabeenak dira, eta Honduras da emakumeentzako munduko bigarren herrialderik arriskutsuena (CEAR-Euskadi, 2020: 37). Indarkeriaren Hondurasko Behatoki Nazionalaren arabera (2019), 2005 eta 2019 artean 6.131 feminizidio eta emakumeen heriotza bortitz egon ziren, alegia, 100.000 biztanleko 10,17ko batez besteko tasa. Bestalde, Guatemala da «*munduko zortzigarren herrialderik bortitzena emakumeen aurkako homizidioei dagokienez*» (Espinoza & Mendoza, 2020: 6) eta 100.000 emakumeko urteko batez besteko 8,5 hilketako tasa du (Ibidem). Horrez gain, kezka iturri da ere eskualdeko hiru herrialde horietan dagoen kriminalizazio eta jazarpen handia, giza eskubideen defendatzen dituzten emakume eta LGBTI pertsonen aurka zein krimen antolatuen eta estatuaren biktimen aurka (CEAR-Euskadi, 2020:56).

«Egiturazko indarkeriaz gain, lurraldetik joateak lotura dauka agintarien justiziarako eta babeserako bermerik ez ematearekin eta pandilla eta talde kriminalen indarkeriarekin. Ez da pandillen indarkeria bakarrik, estatuaren

egiturazko indarkeria ere bada»(Mavi Cruz, Fray Matías de Cordova Giza Eskubideen Zentroa).

Elkarriketatutako antolakundeetako batzuek diote maiz jendeak bizi-baldintzen prekarietatea aipatzen duela bere herrialdea uzteko arrazoi gisa, baina funtsean, oro har, pandillek gauzatzen duten egiturazko indarkeriak markatzen dituela, baita segurtasun-faltak eta estatuaren justizia eskuratzeko tresnen faltak ere. Modu honetan, feedbacka dago aukera ekonomikoak bilatzearen eta hainbat mailatan gertatzen diren indarkeria egoeren artean. Zailtasun ekonomikoak, kasu askotan, ingurune sozialaren kriminalitateak eta erakunde publikoen faltak eta omisioak eragindakoak dira:

«Jendeari galdetzen diogunean "zergatik joan zinen?" erantzuten digute dirurik ez zutelako joan zirela. Eta zergatiaz galdetzen diegunean, erantzuten dute marari ordaindu behar dietela, eta hala egin ezean beren senideak hiltzen dituztela... Jendeak prekarietatearekin justifikatzen jarraitzen du ihesa, baina finean indarkeria da arrazoi nagusia. Migratzaile-etxeak [Saltillo] 2003an zabaldu zituen ateak. Kasu gehienek arrazoi ekonomikoekin zerikusia zuten, hala nola haurrei bizi-aukera hobeak ematea, etxea erostea, negozioa abiatzea... Hala ere, egun, alde egin behar dute Erdialdeko Amerikatik, beste leku iraunkor batean finkatu. Lehenago, aurrezkiekin itzultzea zen ilusioa, negozioa martxan jartzeko. Orain hori ez da existitzen; jendeak alde egiten du, eta ez da inoiz itzultzen» (Alberto Xicotencatl).

Azken urteotan, Guatemala, El Salvador eta Hondurasen, egiturazko indarkeriaz gain, klima-aldaketaren ondorioak ere badira desplazamendu behartuen kausa. Karabanak osatzen zituzten pertsona asko *«lehenago, nekazaritza, basogintza, abere-hazkuntza eta arrantza bezalako jardueretan aritzen ziren, eta, beraz, egoera zaurgarriagoan zeuden munduko tenperaturen igoerak eragindako lehorteen ondoriozko elikagaien eta ekonomiaren segurtasunik ezaren aurrean»* (IOM, 2018). Elikagaiak eskuratzeko gero eta zailagoa da hondamendi naturalen ondorioengatik eta etengabeko muturreko fenomeno meteorologikoengatik; izan ere, eragin negatibo handia dute komunitateen

ingurune natural eta sozialean eta horiek garapen ekonomikorako dituzten aukeretan.

Migrazio-politika Mexikon

Mexikoko migrazio-politika aztertzeko iparraldera begiratu beharra dago, ikusteko migrazioaren kontrola funtsezko tresna bihurtu dela Mexiko, Erdialdeko Amerika eta AEBen arteko harreman politiko eta ekonomikoak garatu eta mantentzeko. Mugako beste eremu batzuetan gertatzen den moduan, Mexikotik igarotzen diren pertsonen bizitza zeharkatzen du migrazio-kontrola esternalizatzeko politikak. Helmugako estatuek sustatutako politika horiek jatorrizko eta igarobideko estatuetera transferitzen dituzte kontrol-mekanismoak, etorrerak prebenitzeko eta migratzaileak eta asilo-eskatzaileak bazterretan edukitzeko.

Mexikoren eta AEBen arteko migrazio-politiken garapenean, hedabideetan presentzia gehien duten elementuetako bat da harresiaren eraikuntza, bi herrialdeetako lurraldeen arteko bereizketa fisiko gisa. 1994an harresia eraikitzen hasi zirenetik, Bill Clintonen administrazio garaian, AEBetako agintari guztiek lagundu dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, harresia hedatzen. Mugak 3.218 km-ko luzera du gutxi gorabehera, eta horietatik 2.092 km Rio Grandetik pasatzen dira. Donald Trump Etxe Zurira iritsi zenean, lurreko muga ia osoak nolabaiteko hesi fisikoa zuen. Bere agintaldian, diskurtso xenofobo, arrazista eta immigrazioaren aurkakoak markatutako urteetan, 15.000 milioi dolar inguru inbertitu dira harresia eraikitzen eta indartzen.

Bereizketa fisiko horrez gain, badaude ere hain nabarmenak ez diren beste batzuk, malguagoak eta mugikorragoak, baina segregatzaileak modu berean. Azken urteotan Trumpek AEBetatik bultzatutako gorroto diskurtsoa mamitu egin da Mexikoko migrazio-kontrolaren berpizkudean.



Trumpen politikaren zutabeetako bat "Migratzaileak Babesteko Protokoloak" (jatorrizko izena ingelesez, *Migration Protection Protocols*, MPP) direlakoak izan dira, baina "Gera zaitez Mexikon" (jatorrizko izena ingelesez, *Remain in Mexico*) izenaz ere deitu izan zaio. 2019ko urtarrietik aurrera inplementatutako programa bat da. Horren bidez, AEBetan asiloa eskatzen zuten pertsonak Mexikora itzularazten zituzten, eta han prozeduraren izapidetzearen zain egon behar zuten, kasuan kasuko entzunaldira deitu arte.

«Nazioarteko babeserako eskubidea erabat urratzen duen programa da. 2019ko urtarrilean hasi ziren aplikatzen Tijuana mugan, Trumpen presiopean, eta mugaldeko puntu gehiagotara hedatu da, batez ere Tamaulipasera, zeina Mexikoko estatu arriskutsuenetakoa baita; bertan gauzatzen ditu krimen antolatuak migratzaileen aurkako indarkeria gehien. Urte hartako ekainetik aurrera, Mexikoko Gobernuari muga-zerga % 5 igotzeko mehatxuarekin, lortu egin zen 'Gera zaitez Mexikon' ofizialtzeko akordioa» (Mariana Zaragoza).

Programak urratu egiten ditu estatuek nazioarteko babesari dagokionez dituzten betebeharrak, eta, bereziki, pertsona baten bizitza, askatasuna eta osotasuna arriskuan dauden leku batera itzularazteko debekua, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioan eta nazioarteko beste hitzarmen batzuetan xedatutakoaren arabera.

AEBetako mugara iritsitako migratzaileen kopuruak gora egin zuen, eta, praktikan, itxarote-zerrendak eratu ziren, Mexikoko agintariek beren lurraldean kudeatzen zituztenak, AEBetako Mugako Poliziak artatu ahal izateko.

«Mexikok kudeatu ditu AEBetako Mugako Poliziaren itxaron-zerrendak. 2016tik aurrera, haitiar dezente iristearekin batera, iparraldeko mugako krisia ikusarazten hasi zen; tapoi bat sortu zen. Eta geroztik, mugako garitako kudeaketa zaildu egin zen, are gehiago migratzaileen karabanak iritsi zirenean. AEBetako gobernuak esan zuen ezin zituztela mugako postuan hartu asilo-eskatzaile guztiak, eta Mexikorekin antolatu zen itxaron-zerrendak egiteko. Itxaron-zerrenda horiek legeaz kanpokoak dira. [...] Sei hilabetetik urtebetera iraun dezakete. Egunero,

goizeko 6etan, familiak zein norbanakoak bertara doaz euren gauzekin, ea zortea duten AEBetara pasatu eta asiloa eskatzeko. Egunero» (Mariana Zaragoza).

Arrisku handia da ihesean dauden pertsonentzat asilo-eskaera noiz formalizatuko zain Mexikon geratzea. Mugarik Gabeko Medikuen (jatorrizko siglak frantsesez MSF) arabera (MSF, 2020), 2019ko irailean, Nuevo Laredon Migratzaileak Babesteko Protokoloen babespean zeuden pazienteen % 43,9k bahiketa jasan berri zuten, eta %12k, bahiketa saiakera. Urrian % 75era igo zen MPP programaren (Gera zaitez Mexikon) babespean zeuden pertsonen bahiketen ehunekoa.

Baina horretaz gain badaude abiarazitako beste programa batzuk hirugarren herrialdeetan uzten dituztenak nazioarteko babes-beharrak dituzten pertsonak, beren bizitza arriskuan jarrita. Trumpen agintaldian, AEBek presio handia egin zieten Erdialdeko Amerikako gobernuari, igarobidean zeuden pertsonen kontrola indartu zezaten eta AEBetako mugara hel ez zitezen; elkarlan hori ukatuz gero, zigor ekonomikoekin mehatxu egiten zuten. Ondorioz, migrazio-fluxuak kudeatzeko elkarlana helburu, hainbat hitzarmen sinatu ziren, "Asiloari buruzko elkarlanerako hitzarmenak (jatorrizko siglak gaztelaniaz, ACA) El Salvador, Honduras eta Guatemalako gobernuen" izenez ezagutzen direnak.

Guatemalaren kasuan, akordioa 2019an sinatu zuten, orduko presidente Jimmy Moralesen agintaldian. Horri esker Guatemala "herrialde seguru" gisa sailkatu zitekeen, nahiz eta 2017an "munduko bederatzigarren herrialderik bortitzena" izan (Mendoza, 2019) Droga eta Krimenaren aurkako Nazio Batuen Bulegoaren (ingelesezko siglekin UNODC, 2019) datuen arabera. Horren ondorioz, AEBek baimena zuten asilo-prozeduraren ebazpenaren zain zeuden hondurastar eta salvadortar deportatuak bidaltzeko. Bestalde, guatemalarrak Mexikon itxaron behar zioten ebazpenari, eta, horrela, ukatu egiten zieten AEBetara sartzea, beraientzako herrialde segurua izanagatik eskaera formalizatzeko. Ondorioz, asilo-eskaerari uko egitea erabakitzen zuten, eta euren jatorrizko herrialdeetara itzuli behar izaten zuten, arrisku larrian egon arren (Human Rights Watch, 2020).

AEBek El Salvadorrekin eta Hondurasekin zituzten hitzarmenak ez ziren ezarri, eta ACA hitzarmena 2021eko otsailaren 6an eten zen, Joe Bidenen egungo administraziopean. Hala ere, joera oso larriak adierazten dituzte giza eskubideen nazioarteko hitzarmenen bermea eta errespetuari dagokionez, baita errefuxiatu eta migratzaileen bizitzei dagokionez ere.

Presidente berriak Trumpen politika errepresiboenetako batzuk geldiarazi ditu, hala nola harresia eraikitzea eta 'Gera zaitez Mexikon' plana (MPP). Ofizialki paralizatzen saiatu da, baina AEBetako hegoaldeko estatu errepublikanoek defendatu egin dute auzitegietan. MPP plana berriro ezartzeko eskatzen duen epai baten menpe dago Administrazioa.

Txosten hau idatzi bitartean^[5], Joe Bidenen administrazioak legegintza-proposamen berri bat aurkeztu du, baina oraindik goiz da baloratzeko aldaketa garrantzitsuak ekarriko ote dituen AEBetako asilo- eta migrazio-politikan, eta Mexikok eskualdean jokatzen duen rolean zer eragin izango duen.

Giza eskubideen aldeko antolakunde batzuek uste dute itxura garbitzea dela. Bidenen Administrazioak indarrean mantentzen du 42. titulua, pandemiaren ondorioz ezarritako osasun publikoko politika bati jarraikiz. Arau horrek aukera ematen du agiririk gabe muga zeharkatzen duen edonor herrialdetik kanporatzeko, inolako bermerik eman gabe arrazoiak adierazteko eta nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea gauzatzeko.

Aduanen eta Mugako Babesaren Zerbitzuak (jatorrizko siglak ingelesez, CBP) urrian argitaratutako datuen arabera, 1,7 milioi pertsona atxilotu zituzten hego-mendebaldeko muga 2021eko urte fiskalean, zeina irailaren 30ean bukatu baitzen. 42. tituluaren ondorioz Mugako Patruilaren historiako atxiloketa-kopururik handiena lortu da (Castillo & García, 2021).

Halaber, Mexikoko migrazio-politikaren noraeza ez da oso itxaropentsua. Elkarriketatutako giza eskubideen aldeko antolakundeak ez dira oso baikorrak migrazio-politikaren aldaketa erradikalari dagokionez, zeinaren

[5] Lan honen oinarrian dauden elkarriketak 2020ko ekaina eta urria bitartean egin ziren, Donald Trumpen agintaldian. Txostenaren erredakzioa Bidenen agintaldiko lehen hilabeteetan egin zen.

emaitza migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak babestea izango den. Mexikon dituzten eskubideak bermatzeko, migrazio-politikan aldaketa zorrotza gertatu beharko litzateke, eta beste herrialde batzuen —batez ere AEBen— interes komertzialen mende egoteari utzi beharko lioke. Mariana Zaragozaren hitzetan:

«Migrazio-politika ez da nazioarteko harremanekin lotuta egon behar. Eta beharrezkoa da arauak aldatzea eskubideak erabat eskuratzea ahalbidetzeko, migratzaileentzat ez ezik biztanleria osoarentzat».

Hegoaldeko Muga Plana

AEBetako muga azpikontratazio eta militarizazioaren beste zutabeetako bat Hegoaldeko Mugari Arreta Integrala Emateko Programa da (jatorrizko siglak gaztelaniaz PFS), zeina kolore politiko desberdinetako gobernuek mantendu duten —Europar halako hitzarmenekin gertatzen den bezala—.

2014ko uztailetik ezarri zuten Enrique Peña Nieto eta Barack Obama orduko presidentek. Ondorioz, Mexikoko hegoaldeko mugako estatuak militarizatu ziren eta migratzaile irregularren deportazio kolektiboak areagotu ziren, asilo-eskatzaileak barne. PFS programa AEBetako gobernuak sustatzen du zuzenean Mérida Ekimenaren bidez; horren zutabeetako bat "AEBen laguntza da, Mexikok Guatemalarekin eta Belizerekin dituen muga porotsu eta ez-seguruak ziurtatzeko". Programa hori gauzatzeko, Migrazio Institutua Nazionala (jatorrizko siglak gaztelaniaz, INM) koordinatu egiten da estatuko beste erakunde batzuekin batera, segurtasun kidego eta indarrak barne, baita aduana- eta inteligentzia-zerbitzuekin ere, —Ikerketa eta Segurtasun Nazionalaren Zentroa (jatorrizko siglak gaztelaniaz, CISEN)—.

PSF, "Mexikon sartzen eta handik igarotzen diren migratzaileen giza eskubideak babesteko eta zaintzeko" ezarri zen formalki, eta, batez ere, migrazio-kontrolerako ekipamenduak indartzera zuzenduta zegoen. AEBen laguntzarekin, itsas-base aurreratuak zabaldu dira mugako ibaietan, Guatemala eta Belizeko mugatik iparraldera 100 miliatik gora luzatzen

diren segurtasun kordioak, droneak, zaintza-gailuak, alarma-ekipoak, etab. Herrialdean sartzeko bide nagusietan hedatzen da PFS programa.

Sarbide hauetako bat Tapachula hiria da; bertatik, norbanako, jende talde eta karabanek Arriagarako bidea egiten dute kostaldetik, errepide eta bideetatik. Beste batzuk Comitán-etik sartzten dira, errepidez ere mugitzen dira eta normalean San Cristóbal de las Casas eta Tuxtla Gutiérrez zeharkatzen dituzte Arriagaraino. Puntu horretatik, trenbidea edo Ciudad Ixtepec-erako errepidea jarraitzen dute, eta, ondoren, Tehuantepec-eko istmoa zeharkatzen dute Acayucan-era hurbildu arte.

Tenosique-tik barrena Mexikon sartzten direnek Palenque-tik jarraitzen dute bidea, eta ondoren Coatzacoalcos-era doaz Acayucanera iristeko. Tenosique da Hegoaldeko Mugako sarrera-puntua; bertan, martxan jarraitzen du La Bestia^[6] izenez ezaguna den salgai-trenak, eta zenbaitek aukera arriskutsu horri heltzen diote handik bertatik.

Acayucanen bidea bitan banatzen da, eta La Bestiak aukera bat izaten jarraitzen du; oso arriskutsua da, baina batzuetan igarobidea baliabide ekonomiko gutxiagorekin egin behar dutenek aukeratzen dute. Hala ere, krimenaren indarkeriak duen genero-joeren ondorioz, emakume gutxiago saiatzen dira bide hori egiten.

PSFren helburua Erdialdeko Amerikako iparraldeko migrazio-mugimenduak mugatzea eta desanimatzea da, baita nazioarteko babeserako sarbidea mugatzea ere. PSF programaren ondorioz, Mexikoko hegoaldeko estatuak migratzaileak eta errefuxiatuak atxikitze gune bihurtzen dira

[6] "La Bestia" edo "heriotzaren trena" Mexiko hegoaldetik iparraldera zeharkatzen duen salgai-trena da, eta migratzaile eta errefuxiatu askok Mexikoko iparraldeko mugara iristeko erabiltzen dute. Giza eskubideen aldeko antolakunde ugari ohartarazi dute bide honen arriskuaz, batez ere emakumeen kasuan. Elkarrizketatutako antolakundeek adierazi dutenez, gero eta emakume gutxiagok jotzen dute garraiobide horretara, dakarren arrisku itzelaren ondorioz. Ikus informazio gehiago: Isacson, Meyer, Smith (2015) .

erabat. Kontuan hartuta zein den errealitate geografiko eta politikoa Erdialdeko Amerika eta Mexiko arteko mugan, igarobidean dauden pertsonen kontrola Mexikoko lurraldean daudenean gauzatzen da, horiek herrialdearen hegoaldean atxikituta eta XXI. mendeko Migrazio Estaziotik —herrialdeko atxilotze zentrorik handiena, Tapachulan— kanporatzea bideratuz.

Migrazio Estazioak eta Behin-behineko Egonlekuak

Espainiako Estatuan eta Europako Batasunean oro har gertatzen den bezala, atxilotze-zentroak ezarri dira Mexikon, migratzaileen eta errefuxiatuen joan-etorrien errepresio, kudeaketa eta kontrolerako mekanismo gisa. Zentro horiei, eufemistikoki, “Migrazio Estazio” deitzen zaie.

Gaur egun, mota horretako 30 zentro daude martxan herrialdean, edukiera handiena dutenak Siglo XXI (960), Acayucan (836) eta Iztapalapa (430) estazioak dira; hirurek, guztira, 2.226 migratzaile jaso ditzakete (CNDH, 2019:7). Migrazio-bide nagusietako hainbat puntutan kokatutako gainerako *estazioek* edukiera dezente txikiagoa dute.

Atxilotzeko eta kanporatzeko makineria horren zerbitzura, martxan daude ere “Behin-behineko Egonleku” direlakoak (jatorrizko izena gaztelaniaz, *Estancias Provisionales*), herrialde osoan sakabanatuta dauden edukiera gutxiagoko zentroak, zeinetan egoera irregularrean dauden pertsonak atxilotzen dituzten Migrazio Estazioetara eraman arte.

Giza eskubideen defendatzaileek eta antolakundeek adierazi dute Migrazio Estazioetan zein Behin-behineko Egonlekuetan espetxe eredua erreproduzitzen dela.

«Badaude atxilotze-zentroak, baina eufemismoak erabiltzen dituzte haiek izendatzeko. Agintarientzat, ez dute jendea atxilotzen, “erreskatatzen” baizik. Eta atxilotze-zentroetan daudenean, “ostatu ematen” diete. Baina migrazio arrazoiengatik atxilotuta bat da. Atxilotze-zentro baten baldintzak dituzte, baina askoz berme gutxiago, prozesu legal eta juridikoetarako sarbidea ez dagoelako bermatuta, ezta kanpoko komunikazioa ere» (Mavi Cruz).

Antolakunde espezializatuek, Fray Matías de Córdoba CDH zentroak esaterako, salatu egin dituzte zentro horietan atxilotutakoek bizi dituzten baldintza latzak eta sistematikoki jasotzen duten tratu ankerra eta gizagabea. Horrez gain, salaketak jarri dira atxilotutako pertsonen heriotza kasuengatik, inoiz argitu ez direnak, eta horiei buruzko gardentasun falta dago, sekuritizazioaren diskurtsoarekin justifikatuta.

«Baldintzak... Tira, tratu anker eta gizagabeak, baita tortura ere. Barruan gertatzen direnei buruzko txosten ugari daude. 2019an neskato bat hil zen Migrazio Estazio batean. Inork ez daki zer gertatu zen, neskatoa hil ostean ama deportatu zutelako. Mutil haitiar bat ere hil zen Tapachulan, gau batez agonian egon ostean. Inork ez daki zer gertatu zen. Pandemia hasieran protestak izan ziren estazioetan, askatasuna eskatuz, eta orduan guatemalar bat hil zen, itota, koltxoiak erre zituztelako eta Guardia Nazionalak^[7] ez zielako irteten utzi. Guardia Nazionalak estazioen kontrola hartu du. Segurtasun nazionaleko espazioak direnez, oso informazio gutxi dago, eta are gutxiago orain» (Mariana Zaragoza). MSF antolakundeak ere "jende pilaketak, arreta mediko eskasa eta baliabide egokien falta" salatu du. Haien lantaldeek "gaixotasun infekziosoak eta beherakoak dituzten pertsonak artatu dituzte, baita mota askotako indarkeriaren biktimak ere (sexu indarkeria barne); diagnostikorik eta tratamendurik ez zeuzkaten pertsonak. Bereziki gogorrek dira aurkitu dituzten baldintza higienikoak. MSFko lantaldeek Acayucaneko atxilotze-zentroa bisitatu ahal izan zutenean, egunean ordubetez bakarrik ematen zuten ura; 2019ko udan, masifikazioaren puntu gorenean, 20 minutura murriztu zuten. Goizero kentzen zizkieten lo egiteko koltxonetak, eta berriro banatzen zituzten gauean, ausaz, maindirerik gabe, azaleko infekzioak erraztuz. Bero latzak, masifikazioekin batera, maiz zorabioak eragiten zituen.

.....
[7] Mexikoko Guardia Nazionala gorputz militarra da, Andrés Manuel López Obrador presidenteak sortua, delinkuentzia antolatuari aurre egiteko estrategiaren baitan. Defentsa Ministerioari zuzenean atxikita dago, eta haserrea eta kezka piztu ditu, batez ere herrialdeko segurtasun publikoa desmilitarizatzeko MORENA alderdiaren hautagaiaren konpromisoan konfiantza zutenen artean.

Talde zaugarriek, hala nola haurdun dauden emakumeek, bakarrik dauden adingabeek, nerabeek edo haien ardurapean haurrak dituzten gurasoek, ez dute haien segurtasuna bermatzeko arreta edo espazio egokirik.

Era berean, barneratzearen iraupena atxiloketa-baldintzen astungarria da. Arau-esparruaren arabera^[8], Migrazio Estazioetako atxiloketa-epea 15 eta 60 egun artekoa izan daiteke, pertsonaren egoeraren arabera; Behin-behineko Egonlekuetan berriz, ezin da 48 ordutik edo 7 egunetik gorakoa izan, zentroaren tipologiaren arabera. Epeak ez betetzearen garrantzia hobeto ulertzeko, kontuan izan behar da zentroak Mexikoko lurraldeko hainbat tokitan sakabanatuta dauden gelaxka txikiak izaten direla. Chiapasen kasuan, Gobernuak herrialdearen erdialderako eta iparralderako igarobidea kontrolatzeko ezarri dituen barne aduanei erantsita egon daitezke.

«15 egun eman izan dituzte soilik 48 ordu egon daitezkeen tokietan. Gainera, zentroak gainezka daudenean, esparruak eransten dituzte, kirol-karpak kasu. Leku itxiak, kontrola ditzaketenak; bertan mantentzen dute jendea. Atxilotze-zentroek higiene-baldintzarik edo bermerik ez badute, kiroldegiek are gutxiago» (Mavi Cruz).

Elkarriketatutako antolakundeak eta egindako jarraipen-txostenak bat datoz salatzean atxilotze-zentro horiek ez daudela pentsatuta pertsonen migrazio-egoera ebaluatzeko, ezta beharrezko prozesu administratibo eta judizialak eskuratu ditzaten ere. Salatzen dutenez, ez da bermerik ematen nazioartean babesa eskatzeko dituzten eskubideak gauzatu ahal izateko, eta urratu egiten da ez-itzulketaren printzipioa, nahiz eta igarobidean dauden pertsona asko arriskuan egongo diren beren jatorrizko herrialdeetara itzularaziz gero. Halaxe azaltzen du Mariana Zaragozak: *«Hainbestekoa da tratu txar instituzionala, ezen jendeari 'ohartarazten' baitiote babesa eskatuz gero*

.....
[8] Zentro horien existentzia eta funtzionamendua araututa daude Migrazio Legearen, horren erreglamenduaren eta Migrazio Institutu Nazionalaren Migrazio Estazioen eta Behin-behineko Egonlekuen funtzionamendurako Arauak ematen dituen Hitzarmenaren arabera. Arauetako 4. eta 5. artikuluek estazio moten arteko ezberdintasunak deskribatzen ditu.

hilabeteak, urtebete egongo direla bertan, inork egun bat bera ere pasa nahi ez duen zentro horietan atxilotuta».

Azkenik, Mexikoko antolakundeek salatu egiten dute herrialdeak jasaten duen militarizazioa, baita Guardia Nazionale “segurtasun publikoko” zereginetan hartzen ari den papera ere:

«Orain, diputatuen eta senatarien ganberek onartutako lege bat dago, eta atzerritarren jazarpen-lana, Migrazioen Institutu Nazionalak gauzatzeaz gain, Guardia Nazionalak ere egiten du. Teorian, Mexikoko Guardia Nazionale sortzea herrialdean bakea ezartzeko zen —nik ere ez dut ulertzen armen bidezko bakegintza—, baina bakegintza utzi eta atzerritarrak jazartzen hasi dira. Guardia Nazionalak ez du inolako ezagutzarik atzerritarren eta errefuxiatuen eskubideei buruz» (Alberto Xicotencatl).

Bidea

Hegoaldeko Mugako Programa abian jarri zenetik, areagotu egin zen Guatemalako mugan segurtasun-indarren presentzia, eta ugaritu egin dira bertan laguntza-guardiak eta disuasio-kontrolak. MSFtik adierazten dutenez (2020:31), *«migratzaileek ibilbide alternatiboak bilatzeak areagotu egin du talde antolatuen arriskuekiko eta indarkeriarekiko esposizioa, eta Mexikoko Estatuak ez du lortu migrazio-politika bat ezartzea, kontuan hartuko dituen igarobidean dauden pertsonen babesa bezalako oinarritzko alderdiak».*

Mexiko zeharkatzen duten bideetan interes ekonomiko handiak daude, narkotrafikoa, pertsonen salerosketa eta legez kanpoko trafikoa barne. Herrialdetik igarotzen diren bitartean, migratzaileek eta errefuxiatuek krimen antolatuko sareen indarkeriak jasan behar izaten dituzte; sare horiek AEBetaraino doan bide osoan jarduten dute. 2007tik aurrera izugarri areagotu ziren giza eskubideen urraketak, bi fenomenoren ondorioz: i) antolakunde kriminalen eta estatuko segurtasun-kidegoen arteko lurralde-borrokaen ondorioz, eta ii) antolakunde kriminal horiek migrazio-prozesuan sartzearen

ondorioz, bahiketa masiboa eta pertsonen salerosketa bezalako delituen bidez. Estortzioaren, bahiketaren, sexu-indarkeriaren, salerosketaren, torturaren, erailketaren eta desagertzearen aurrean, inpunitate-maila handia nagusitzen da.

«Bidaia izugarri garestia eta arriskutsua da. Zenbait pertsonak baliabide ekonomiko gehiago dituzte beren jabetzak Erdialdeko Amerikan bavian eman dituztelako, edo maileguak eskatu dituztelako. Ondo dakigun moduan, trafikatzaleek ez dituzte bitarteko seguruenak erabiltzen; aitzitik, jendea ezkutatuta joaten da, euren segurtasunerako oso arriskutsuak diren baldintzetan. Zama-kamioietan igotzen dituzte, eta jendea salgaien artean doa, pertsona askoren artean, ezkutatuta, oso baldintza osasungaitzetan. Jende asko hil egin da oxigeno faltagatik... Eta hori, jendeak gurutzatzeko dirua duenean gertatzen da. Dirurik ez dutenean, Mexikoko trenbidea erabiltzen dute, salgai-trena zehazki [La Bestia]. Goiko aldean igotzen dira, edo bidaiarienezako kamioi arruntetan garraiatzen dira. Hala, arriskatu egiten dira Migraziokoek agiriak eskatzera, eta aztarnarik ez badute eta eskatzen dietena ordaindu ezin badute, deportatu egiten dituzte. Migrazio-agenteen estortzioak trafikatzale bati ordaintzea baino apur bat merkeagoak dira. Honako maila hauek daude: maila ekonomiko altuena trafikatzaleei ordaintzea da; gero, gobernuko agenteei estortzioak ordaintzea; ostean, trenbidearen bidez mugitzea, non arriskua oso handia den, aurre egin behar dietelako delinkuentzia antolatuko taldeei, gaizkile arruntei, erasoak eta bahiketak pairatzen dituztelako, lan behartuak egitera derrigortzen dituztelako...» (Alberto Xicotencatl).

COVID-19aren pandemiak migrazio-bideetan izan duen eraginaz ohartarazi dute antolakundeek. Mugak ixteak ikusezintasuna eragin du alde batean eta bestean gertatzen denarekiko. Hala azaltzen du Mariana Zaragozak:

«Aterpetxeak itxi ziren; aterpetxe batzuk janaria ematen ari dira baina ez dute jenderik hartzen; beste batzuek jendea hartzen dute, baina zenbait baldintza betez gero... COVIDa iristean, defendatzaileok ezin izan dugu ikusi zer gertatzen ari den. Igarobideak gero eta ikusezinagoak dira. Kontuan izan behar da orain Guardia Nazionalek hedatu dela. Pandemian erabaki zuten migrazioa kontrolatzeko eta

egiazatzeko lana funtsezkoa zela, nahiz eta intzidentzia-ekintza oro guztiak egin genituen hori horrela izan ez zedin».

Bidaia emakumeen eta LGTBI pertsonen kasuan

«Oso migratzaile gutxi igo ohi dira “La Bestia” trenera Mexiko zeharkatzeko, baina oso espazio maskulinizatua da. Oso arriskutsua da emakumea baldin bazara, haurrekin bazoaz, trans neska bazara, ehuntzen diren indarkeria-dinamika horiei aurre egitea. Argi geratu zaidana zera da, emakumeek migratu egiten dutela, emakumeek Mexiko zeharkatzen dutela, batzuek askoz ere modu ikusezinagoan, hain zuzen ere bidean gertatzen diren sexu-abusuen kontuagatik. Are gehiago, horietako batzuk maskulinizatu egiten dira, gizonez mozerrotzen dira, edo arropa oso zabalak erabiltzen dituzte».
Norte Salvaje, 2021

Emakumeen gorputza faktore erabakigarria da migrazio-proiektu osoan, giza eskubideen aldeko antolakundeek adierazi bezala. Migratzen duen emakume-gorputzak espazio bat irudikatu egiten du, ibilbideko eta sistema heteropatriarkaleko indarkeriak intentsitate bereziz jasaten dituen espazioa, alegia, eta bestelako erresistentziak behar dituen lekua ere eratzen du. Emakumeek bikotekide batekin bidaiatzen badute, dela jatorrizko herrialdetik, dela bidean bikotekide sexual bihurtzen den norbait, babestuta daude nolabait. Alberto Xicotencatlen hitzetan, *«Bikotekide hori lortzen ez badute, [...] askoz ere motelagoa da beren bidea, herriz herri doaz, aldi baterako lana lortzen dute, baliabide ekonomiko apurra bildu eta jarraitu egiten dute. Gelditu, lan egin, baliabide ekonomiko apurra batu eta aurrera jarraitzen dute. Alegia, bidea oso motela da».*

MSFren arabera, 2019ko irailean, antolakundeak artatutako emakumeen eta neskatoen aurkako sexu-indarkeriako kasuak bikoitza baino gehiago areagotu ziren (% 134), aurreko urteko garai berarekin alderatuta.

«Erabateko klandestinitatean bidaiatzen duten emakumeek, elkartasun-sareekin harremanik izan gabe, erasotzaile sexuarekin bidaiatzeak dakarren jazarpena jasan dezakete. Gainera, zenbaitetan mesede sexuarekin ordaindu behar izaten dute bidaia edo segurtasuna, edo sexualki eraso egin edo estorsionatzen dituzten taldeetan harrapatzen dituzte» (Mavi Cruz).

LGTBI pertsonen kasuan areagotu egiten dira, halaber, bidean aurre egin beharreko arriskuak, euren benetako zein sumatutako sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik. Haien aurkako diskriminazio homofobo eta heteropatriarkalek, atzerritar izateari gehituta, are arrisku handiagoan jartzen dituzte inguruko indarkeria fisiko eta psikologikoei dagokionez, eta areagotu egiten dute euren zaurgarritasun-egoera eta bazterkeria soziala. Gainera, pertsona transgeneroen kasuan, ia ezinezkoa da baliabide ekonomikoak eskuratzeko enplegu ordainduak lortzea bidaiarekin jarraitu ahal izateko, eta beren burua behartuta ikusten dute prostituziora jotzera, eta, ondorioz, sexu-transmisiozko gaixotasunak hartzeko arriskua hartzera.

«LGTBI pertsona askok kide sexualak bilatzen dituzte, hori da iparraldeko mugaraino iristeko modua. LGTBI biztanleriak Erdialdeko Amerikan duen bazterkeria-mailaren ondorioz, kolektiboko oso pertsona gutxik topatzen dute lan egonkorra. Hortaz, sexu-zerbitzua da bizirik irauteko modu bakarra. [...] eta igarobidean ere baliatzen dute. LGTBI biztanleriak ez du oro har gorputza baliabide ekonomikoen truke eskaintzen, segurtasunaren eta babesaren truke baizik, horrela aurrera egiteko. Trenbideetan ez bada, errepideetan, eta mexikarrei eskaintzen diete. Esaterako, migratzaile-etxera iristen diren emakume transen kasuan, ia inork ez du bere burua zaintzeko aukerarik izan STGak ekiditzeari dagokionez. Ez dut bat bera ere gogoan GIBaren eramailea ez zenik» (Alberto Xicotencatl).


LGBTI populazioek deserrotze eta bazterkeria sozial eta instituzional handiei aurre egiten diete bidean, ez baitute aurkitzen laguntza eskatzeko espazio edo mekanismorik. Populazio horien aurkako diskriminazioa eta indarkeria familian eta komunitatean hasi ohi den arren, igarobidean areagotu egiten dira estatuko zein estatuz kanpoko eragileen indarkeriak.

Kolektiboki bidaiatzea, indarkeriaren aurrean

2018ko urrian hasi zuen bidea migratzaileen lehenbiziko karabanak, Hondurasetik Mexiko eta AEBen arteko mugara. Haiekin bat egin zuten El Salvador eta Guatemala pertsonak. Guatemala Migrazio Institutuen (jatorrizko siglak gaztelaniaz, IGM) datuen arabera, Hondurasko Estatuko hainbat tokitatik 7.500 pertsona inguruk zeharkatu zuten herrialdea Guatemalarantz. Nazioarteko Migrazio Erakundeak (IOM, 2018) adierazi du karabanako 6.000 lagun inguru iritsi zirela Mexikoko mugara. Mugikortasun-modu berri bat sortu zen horrela, eta Mesoamerikako migrazio-errealitatean mugarrria izan zen. Erantzun kolektiboa da, bidaiaren arriskuei aurre egiteko: taldean mugitzeak babesa sortzen du, segurtasun-indar eta -gorputzen indarkeriaren eta kriminalitatearen aurrean. 2018ko lehenbiziko karabanaren ondoren, beste bederatzi izan ziren 2019. urte amaierara arte, denak ala denak Hondurastik, El Salvadorretik eta Guatemalatik etorritako pertsonak osatuak.

«Mexiko, migratzaileentzako hilerria ez ezik, hala da ere desagertutako pertsona askorentzat. Lurralde osoan eremu jakin batzuk menderatzen dituzten kartel delakoak daude, eta biztanleria migratzailea oso zaurgarria da horiekiko. Lehendik zegoenari gehitzen zaion dinamika da [...]. Bide ezagunetatik zihoazen taldeak, estrategia ezagunen bidez, ez ziren gelditu. Baina talde dinamika masiboa gehitu behar zaio horri: Hondurasetik Guatemalara joan, eta hortik Mexikora sartzeko edozein puntura». (Mavi Cruz).

Mugen militarizazioa indartzea izan da karabanen fenomenoari emandako erantzun instituzionala. 2018ko lehen karabanaren ostean, AEBetako gobernuak dispositibo militar handia zabaltu zuen Mexikoko muga. 2019an zehar milaka migratzaile atxilotu zituzten AEBetako muga. Gainerako estatuetako migrazio-politikak, bereziki Mexiko eta Guatemala, indar militarrek hedatzera bideratu dira, migrazio-kontrola zereginak betetzeko. Giza eskubideen aldeko antolakundeek balorazio anitza egiten dute karabanen fenomenoari buruz, baina, oro har, ados daude migrazio-mugikortasun



kolektiboaren eredu berri honi esker ikusarazi egin direla migrazio-bideak dakarren arriskua eta eskualdeko migratzaileen eta errefuxiatuen beharrak.

«Karabanak status quo-a apurtzera etorri ziren, non denak oso eroso zeuden. Bidea zeharkatzen dute, laguntza humanitarioa ematen diezu, bidean jarraitzen dute, eta kitto. Hainbeste jenderen ikusgarritasunak deseroso jarri gintuen. [...] eta hori gustatu zitzaidan, ados nago deserosotasun horrekin. Dena zalantzan jartzera zetorren: gure moduak, nola ematen dugun arreta, nondik kokatzen ginen, nola kokatzen ginen. Era berean, erakutsi zigun eskubideen defentsa antolakundeok monopolizatzen genuela eta pobrezia deserosoa dela, eta karabana horietan oso jende pobrea dagoela, oso apala, bere burua nonbait ordezkatura ikusteko beharra zuena, eta kolektibo horretan ikusi zuena» (Mariana Zaragoza).

Karabanak antolakuntza forma aldatzen joan dira, higadura politika baten ondorioz eta lehen esperientzien aldean aldatuz joan den artikulazioarekin. Mariana Zaragozak adierazten duenez, ihes egiten dute ehun soziala hautsita dagoen lekuetatik, agintariengan konfiantzarik izan gabe, non estrategia militarra hobetu egin duten modu anonimo eta klandestinoan migratzera behartzeko. Epe luzera, Mexikoko Gobernuaren helburua karabana horietako parte hartzaileak kriminalizatzea ere izan da, *«indar kolektibo hori desagitea»*. Bilakaera hori gorabehera, aktibismoaren eta konpromiso sozialaren hazian sinesten du Zaragozak.

«Uste dut karabanak, guk, gure pribilegioetatik, ikusten duguna baino askoz gehiago direla. Eta oso antolakunde parekidea da, eskubideen aldekoa. Uste dut inpaktua ez dugula imajinatu ere egiten, eta urte asko geroago ikusiko dugu hori guztia mamitzen denean, ahots propioa izatea, eta uste dut dagoeneko badaudela gertatzen ari denaren argi batzuk».

Arrazakeriaren eta harreraren artean: migratzaileen eta errefuxiatuen igarobideari erantzunak

*«Tapachulan nengoela arrazakeria nabaritu nuen. Hondurastarren
kontra sentitu nuen arrazakeria,
uste dutelako guztiak gaiztoak garela,
pandilletakoak garela, etab.
Eta arrazakeriari ikusi nuen haitiarren eta afrikarren kontra.
Gainerako migratzaileengandik haiekiko,
eta baita antolakundeengandik ere.
Diskriminazioa gure hizkuntza ez dakitelako,
eta baita azalaren koloreagatik ere».*
Hondurasko gizon migratzailea

Ez dagoenez gizarte-babeseko sistemarik Mexikon zehar igarotzen diren migratzaileei eta errefuxiatuei aterpea eta laguntza humanitarioa eskaintzen dienik, elizak eta gizarte zibil antolatutako urteak daramatzate beren gain hartzen haiei arreta emateko egituratutako erantzun sozial eskasa. Horren adibide nagusia migratzaile-etxeak (jatorrizko izena gaztelaniaz, *Casa de los Migrantes*) eta aterpeak sortzea da, gune seguru gisa funtzionatzen dutenak eta igarobidean dauden pertsonentzako funtsezko zerbitzuak identifikatu eta eskaintzen dituztenak; hala, arreta eskaintzen diete ere nazioarteko babeseko premiei eta sexu- eta genero-indarkeriaren ondorioz zaurgarrienak diren kolektiboen egoerari (UNHCR, 2018).

Gehien finkatutakoek ostatua, janaria eta, kasu askotan, arreta medikoa, laguntza psikosoziala eta giza eskubideen defentsa eta sustapena eskaintzen dituzte. Espazio hauek koordinatu egiten dira iparralderantz doan migrazio-bidean, kasuen erreferentziarako eta horiek bideratzeko sare-lana eginez.

Era berean, —bereziki REDODEM^[9]-en bidez—, igarobidean dauden pertsonen egoera monitorizatu eta dokumentatzeaz ere arduratzen dira: jatorriko herrialdeak uzteko arrazoiak, agintariek Mexikon emandako tratua, nazioarteko babesaren beharrak, etab. Haien presentzia ezinbestekoa da Mexikon geratu nahi duten pertsona askoren atsedenerako eta bizitzaren babeserako, batez ere, iparraldera iritsi eta AEBetara igarotzen saiatzen direnentzat.

Alberto Xicotencatlek azaltzen du iparraldeko mugaldeko hirietan betidanik egon dela etorkinen presentzia, gehienbat mexikarrak, eta hiriek historikoki izan dituztela migratzaileak zaintzeko politika publikoak. Muga zeharkatzeko zain dagoen jende ugari egon arren, badago harrera egin eta artatzen dituen egitura bat; horrela, atzeritarrekiko arbuioa ez da Mexikoko beste eremu batzuetan bezain handia, eta politika hori maila nazionalean erreplikatzea iradokitzen du:

«Gizarte zibilean hutsuneak dauden lekuetan, edo migratzaileei zuzendutako politika publikoetan hutsuneak dauden lekuetan —herrialde osoan gertatzen dena—, migrazioa arazo bihurtzen da igarobidean zehar dauden komunitateentzat. Migrazioa ez da arazoa, arazo bihurtzen ari gara artatzen ez dugulako. Eta arazo hori ez du estatuak bere gain hartzen, herriari transferitzen zaio, gizarte pobretuari —migratzaileak ez direlako auzo aberatsetatik pasatzen, espazio pobreenetatik pasatzen dira, non indarkeria ere badagoen. Horri gehitu behar zaio jatea, atsedena, arropa, zaintza... behar duten migratzaileen presentzia. Politika publikorik ez dagoenean, igarobideko lekuetan dauden pertsonak dira erantzuten dutenak. Pertsona horiek egun batean edo bitan egin dezakete. Arazoa da pertsona migratzaileen presentzia egunerokoa izaten dela, orduro.

[9] Migratzaileen Defentsarako Antolakundearen Dokumentazio Sarea (jatorrizko siglak gaztelaniaz, *Red de Documentación de las Organizaciones Defensoras de Migrantes*). Igarobidean dauden pertsonak lagunduz, eta dokumentazio prozesuak sortzen ditu, haien egoera salatu eta ikusarazi nahian.

Beraz, jendeak arbuiaitu egiten ditu, eta uste dut oso arbuio ulergarria dela. Beste leku batzuetan egoera ezberdina da, baldin eta biztanleria horri arreta emateko lidergoa bere gain hartu duen gizarte zibilaren presentzia badago. Guk aterpeak kudeatzen ditugu, eta oso bestelako egoera dugu, gizarte askoz hartzaileago eta solidarioagoa dugulako. Beti egongo da xenofobia, ez dugu inoiz hori ezabatuko, baina oso bestelakoa da» (Alberto Xicotencatl).

Faktore horien eta bestelakoen ondorioz nabarmen areagotzen ari da Mexikon migratzaileen eta errefuxiatuen aurkako arrazakeria, baita kriminalizazioa ere. Defendatzaile eta antolakundeek gobernuko agintarien erantzukizuna azpimarratzen dute:

«Nire ustez, karabanen ondoren, arazo handienetako bat izan da kriminalizazioaren narratibak eragin handia izan duela komunitate horietan guztietan, eta migratzaileekiko gero eta etsaitasun-jarrera handiagoa dagoela. Hori, neurri batean, gobernuak egin du, zeinak gauza askoren erantzule egin dituen karabanak; bestalde, hedabideek narratiba hori erreproduzitu zuten [...]; uste dut aporofobia egoera asko eman zirela, migratzaile txiroekiko mespretxuzkoak».

«Lehenbiziko karabanen edozer ematera irteten ziren, besarkada bat, ura, adore hitzak, arropa, eskuartean zeukatena. Hori izan zen lehenengo erantzuna ikusarazi egiten ez zen egoera lazgarri horretan. Askok hunkitu zuen jendea. Baina errepikatzen zenez, eta jendeak eta komunitateek harrera ahalmen gutxi zeukatenez, diskurtso instituzional diskriminatzaile oso nabarmenak gehituta, erantzuna gero eta txikiagoa izan zen» (Mariana Zaragoza).

Arazakeria oztopoa da Mexikoko egonaldian gutxieneko bizi-baldintzak lortzeko; izan ere, gogortasuna eta arriskua areagotzen ditu, baita horrek dakarren eragin emozionala ere:

«Konturatu ginen jendea Mexikotik igarotzen zela, lekuz leku, gertatutakoaz edo sentitutakoaz hausnartu gabe. Migratzaile-etxera heldu eta egonkortasuna aurkitzen dutenean, orduantxe hasten dira gaixotzen... Bidaian zehar jasaten dute, eta gelditzen direnean kanporatzen hasten da dena. Jendeak hitzekin esaten ez zuena, gorputza adierazten hasten zen. Baina bai, gertaeren disoziazioa gorputzak

baliatzen duen tresna da, ez dut uste jendeak kontzienteki egiten duenik, defentsa mekanismoa dela uste dut» (Alberto Xicotencatl, El Saltillo migratzaile-etxea).

Baina bide horretan, migratzaileak eta errefuxiatuak ez daude bakarrik. Laguntzen dituzten antolakunde, sare, aterpe eta defendatzaileek egiten duten lan eskergari esker, hainbeste indarkeriaren artean atsedenerako eta zaintzarako espazioak aurki ditzakete:

«Ez ditut inoiz ahaztuko aldamenean egondako pertsonak. Askotan erori naizelako... Eta negar egin... Baina badira han egon direnak, han zeuden gaizki nengoenean... Jende hori guztia, pixkanaka, beraien hitzak... Adorea ematen didate... Nire istorioa bere istorio bihurtu dute.... Pertsona horiek dira aurrera egiteko aukera eman didatenak. Argi apur bat da, hortxe dagoena, ikusi nahi duenak ikusten du, eta oso baliagarria da. Ez da erraza hau ibiltzea. Ez da erraza parke batean eseri, bihotzerrearekin, eta pentsatzea: "zer egingo dut?". Ez da erraza.» (Venezuelako emakume migratzailea).





Irun eta Hendaia arteko
muga zeharkatzea

*«Egoera larria da. Irun eta Hendaia arteko muga
eremu dramatikoa eta deshumanizatua bihurtu da,
bai migratzaileentzat, baita guretzat ere. [...] Bidegabekeria handia dago, hor ikusten dira argi
Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ezberdintasunak,
hor dago boterea».*
Norte Salvaje, 2021

Hegoaldeko mugatik Espainiako Estatura heltzen diren askok Belgikara, Alemaniara edo Frantziara iristea dute helburu. Horretarako, muga zeharkatu behar dute eta berau egiteko Irun eta Hendaia arteko muga da urratsetako bat. Azken urteetan bereziki entzutetsua bilakatu da hedabideetan zein giza eskubideen elkarreetan, izan ere, migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak urratzen direla ikusi ahal izan dugu.


Frantziako Estatuak terrorismoaren aurka hartutako neurrien eraginez, nabarmenki gogortu dituzte mugetako kontrolak. Bereziki 2015eko azaroan Parisen izan ziren atentatuen ostean. Segurtasun kontrol zorrotzak ezarri ziren mugak zeharkatzen saiatzen ziren Europar Batasuneko herritarrak ez zirenentzako. CEAREk adierazi moduan (2018), *«ondorio larriak izan ditu migratzaileengan eta errefuxiatuengan, herrialde seguru baterako sarbidea galarazi baitie. Mugetako kontrolek atxilotzeko bide berriak ekarri dituzte, eta Estatu Kontseiluak legezkotzat jo ditu, atxilotuen egoera aztertzeko behar den aldirako. Migrazioen kontrolerako formula horiek guztiak 2017ko urte amaieran indartu ziren, terrorismoaren kontrako neurrien aldi berean, eta horrenbestez, migrazioen eta terrorismoaren arteko lotura sortu dute, horretarako harreman funtsezkorik ez dagoen arren. Ondorioz, migratzaileekiko arbuioa zabaldu egiten da».*

Irtetea

Gaur egun Irun eta Hendaia banatzen dituen muga zeharkatzen duten gehienak gizonak dira. Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetatik datoz, hau da, Guinea Konakrytik, Boli Kostatik, Malitik edo Senegaldik. Baina, bideko arrisku handiez jabe badira era, gero eta emakume gehiago dira haien jatorrizko herrialdeetako indarkeria-molde heteropatriarkaletatik ihesi datozenak. Esate baterako, behartutako ezkontzak edo genitalen mutilazioa.

«Azken urtean emakume gehiago ikusten ari gara. 25 emakumerekin izan gara zentroan, asko dira. Haurrak dituzten emakumeak, bakarrik datozenak... Lehen, Frantzia ezagun bat zuten emakumeak baino ez ziren etortzen, gaur egun, bakarrik datoz. Berria da hori. Emakume batzuek behartutako ezkontzetatik, genitalen mutilaziotik, indarkeria matxistatik... ihes egiten dute. Emakume horiek denek diote ez dutela haien haurrentzako bizi hori nahi. Emakumeentzako bidaia bereziki gogorra da. Gizonentzat zaila da, emakumeentzako are gehiago. Asko bidaian zehar bortxatu dituzte; batzuk bortxaketa horien umeez haurdun datoz» (CIMADE).

Frantziara Irunetik heltzen direnetako askoren asmoa nazioarteko babes eskatzea da. Gehienek Europarako sarbidea Hegoaldeko Mugatik egiten dute, Ceutako edo Melillako hesiak saltatuz, edo itsasoa zeharkatuz. Iritsiera horiek arrazoi ekonomikoei egotzi izan bazaizkie ere, elkarrizketatu ditugun elkarteek adierazi dute indarkeria eta jazarpen egoerak egon ohi direla etorrera horien askoren atzean. Emakumeen kasuan, sufritzen duten indarkeria, sarri, haien generoagatikoa da.



Europarako bidaia

«Nire herrialdetik irten baino lehen, ezkondu eta haur bat izan nuen. Baina handik irten nintzenean, nire emaztea haurdun zegoen. Elkarrekin bidaiatu ginen Aljeriaraino, baina ezin izan zuen bidean segi... Arazo asko izan zirelako eta hark ezin zuelako korrika egin. Itzuli behar zuen Gineako anaia bat topatu nuenean, haren esku utzi nuen emaztea berarekin itzul zedin. Gero, Marokon sartzeko konpondu nintzen. Atxilotu egin ninduten eta Gineara bidali ninduten berriz. Zazpi hilabete igaro ziren eta anaia batek Marokora joateko bisa lortzen lagundu zidan. Marokora iritsi nintzen eta hilabete eta egun batzuk beranduago hona iritsi nintzen».
Ibrahima

Europar Batasuneko mugak esternalizatzea politikak direla eta, gero eta bide arriskutsuagoak egin behar izaten dituzte kontinentera iritsi nahi dutenek. Politika osagarrien arkitektura horren helburua da EBren kanpoko mugen kudeaketa inguruko herrialdeetara lekualdatzea, errefuxiatu eta migratzaileen etorrera saihesteko. Migrazio-kontrola hirugarren herrialdeen esku uzten dute horrela, aldez aurreko atxikitze-eremu bat sortuz eta, era berean, interes geopolitiko edo ekonomikoengatik leku estrategikoetan presentzia eskuratuz.

«Autoan eta kamioian bidaiatu nintzen. Bidaiak lagun batekin ordaindu nituen. Lehenik Malitik Nigerrera, gero, Nigerretik Libiara. Guztira bost ginen. Ordaindu, eta Libian sartu ginen. Hor lan pixka bat egin nuen. Baina zaila izan zen, hiru aldiz atxilotu ninduten. Hiru aldiz hartu dut Maltara joateko ontzia. Hirugarrenean, azkenean, lortu nuen sartzen. Han nintzela, jan ahal izateko eta ontzirako dirua lortzeko lan egin nuen. Hala bidaiatu nintzen, arriskutsua da. Diru pixka bat irabazi nuen Italiaraino joateko eta gero Italiatik Espainiara. Bilboraino. Malitik 2015ean irten nintzen eta 2019an heldu nintzen Maltara» (Amadu).

Mugen kontrolaren azpikontratatzeari hainbat mekanismoren bidez gauzatzen da, besteak beste:

- Europar Batasuneko Estatuaren Kanpoko Mugetan Lankidetzaren Operatiboa Kudeatzeko Europako Agentziaren (FRONTEX) baliabideak zabaltzen eta jarduteko gaitasunak indartzen.
- Hirugarren estatuarekin berronarpenera akordioak sinatzen, atzerritarrak itzuliko direla bermatzeko.
- Inguruko herrialdeetan muga-kontrolaz arduratzen diren polizia eta militar agentziak prestatzen eta ekipatzen.
- Herrialde horietan migratzaileak atxikitzeko zentroak finantzatzen.
- EBz kanpokoak diren baina mugakideak diren herrialdeak banatzeko harresiak eta hesiak eraikitzen.
- Giza-lekualdatzearen kontrola handitzeko teknologia ezartzen.

Mekanismo horiez gain, Europako Batasunaren herrialdeetara legez sartzeko zailtasunak daude. Afrikatik datozenentzako arazo handienetako bat Schengen biserregimena lortzea da, eremu barruko herrialde batzuetan sartzea baldintzatzen baitu. Erregimen horrek baldintza batzuk ezartzen ditu, eta sarri, zaila izaten da horiek betetzea. Gainera, kontroletan alirizira betetzen dituzte baldintzak.

Migrazio-kontrola esternalizatzen da, halaber, bidaiari-garraio enpresei betebeharrak ezarri. Enpresa horiek helmugako estatuak eskatutako dokumentazioa egiaztatu behar dute, eta baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen ontziratzea ukatzen diete, zigor ekonomikoen araubide baten pean.

«Ikaragarria da Afrikakoa izateagatik zer baldintza jar diezazkizuten Europako herrialde batera iritsi, eta bertan sartzeko. Dirua izanik eta baldintza guztiak beteta ere, baldintza gehiago jartzen dizkizute. Aldiz, [Europatik] Afrikara joan nahi baduzu, bihar bertan joan zaitezke. Bada bere burua bide hori hartzera behartuta ikusten duenik, bisarik ematen ez dietelako. Bizitza arriskuan jartzen dute eta itsasoan hiltzen dira. Istorio asko dira. Inork ez du atseginez, motibaziorik

gabe, familia, jaioterria atzean uzten... [...] inork ez du atsegin itzuliko ote zaren ez jakitea, eta itzultzen bazara nor topatuko duzu ez jakitea» (Lidia Kinson, MULISOL).

Migrazio- eta harrera-politiken gogortzeek ihesa indarkeria-ekoizle iturri bihurtu dute. Mugikortasunari oztopoak jarrita, errefuxiatuek eta migratzaileek gero eta bide arriskutsuagoak hartzea eragin du, dela bideengatik beragatik edo zeharkaldian dauden antolatutako krimen-sareengatik. Emakumeek bereziki bortxatuak izateko eta esplotazio sexualeko trata-sareetan erortzeko arriskua dute.

«Migratzea arriskutsua da. Zure azalean bizi behar duzu ondo ulertzeko. Imajina ezazu Nigeriatik datorren pertsona bat, dena atzean utzi duena. Bada bidaian 3 edo 4 urte ematen duenik. Hasieran zuten dirua, zortea, lapurtuak izan ote diren... Horien arabera da. Gauza asko sartzen dira jokoan. Batzuek bi urte igarotzen dituzte herrialde batera iritsitakoan, lanean, dirua aurrezteko. Emakumeak prostituitzen dira, edo bortxatu egiten dituzte... Basamortua zeharkatzen duen jendea dago. Emakumea bazara, edozein gizoni lotzen zatzaizkio babesagatik. Emakume asko haurdun heltzen dira bortxatu egin dituztelako» (Lidia Kinson).

Europara heltzea. 2018ko uda

«Emakume batek bus geltokian aurkitu gintuen, eta handik bazkaltzera eta kafea hartzera gonbidatu... Goiz hark denetik eman zigun... Lehen aldia zen txaketa batzuk eman zizkigutela. Iristen diren pertsonak laguntzen dituen elkartera eraman gintuen. Harrera egin, eta European gauzak nola egiten ziren azaldu ziguten».
Ibrahima

2018ko udaz geroztik, erabateko aldaketa izan zen Irun eta Hendaia arteko muga-gunearen inguruan. Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía

(APDHA, 2019) elkartearen arabera, urte hartan 64.120 pertsonak zeharkatu zuten Espainiako Hegoaldeko Muga, aurreko urtearen bikoitza, eta ordura arteko kopururik handiena. Andaluziako kostatik sartu ziren gehien bat, eta horietako askok bidean iparraldera segitu zuten, Frantziako muga zeharkatu asmoz. Euskal Herriko txoko desberdinetara, –Bilbo, Donostia edo Irun– afrikar jende-talde handiak iristen hasi ziren orduan.

Euskal Herriko antolakuntza oso garrantzitsua izan zen eta erakundeek esku hartu nahi izan ez zuten egoeretan erantzuna azkarra eta egoerak behar adinakoa izan zen. 2018ko lehen hilabeteetan, lagun asko saretu ziren eta Irungo Harrera Sarea eta Diakité elkarteak gisako egitasmoak sortu zituzten. Harrera-, salaketa- eta laguntza-lanak egiten hasi ziren Frantzia edo Europako beste herrialderen bat helburu zuten pertsonekin.

2018ko uztail amaieran hasi zen Irungo Harrera Sarea lanean. Egun batzuk ziren ohartuta zeudela tren eta bus geltokiko parkingean beltzen talde bat zegoela lotan.

«Zer egiten zuten ikustera joan ginen eta galde egin genien. Esan ziguten muga hainbatetan zeharkatzen saiatu zirela baina itzuli egin zituztela. Hor hasi zen dena. Udalarekin hitz egin genuen eta berririk ez zutela esan ziguten, ez zituztela ikusi. Ez haiek, ezta poliziak ere. Inork ez zituen ikusi. Bigarren batzarra egin genuen, baina ezer, ikusi gabe jarraitzen zuten. Hortaz, udaletxera gosaltzera joateko deialdia egin genuen, eta zentsura-mozioa zegoenez, prentsa ere bazen han. Gu migratzaileekin gosaltzera joan ginen. Nahastea sortu zen eta arazoa ikusarazten hasi zen».

Hala bada, herritarrak antolaturik, lehen hiru hilabeteetan, egunero-egunero aritu ziren 20 eta 50 lagunentzako bazkaria prestatzen, arropak ematen, garbitzeko eta komunera joateko lekuak bilatzen eta pertsona haiek lotarako leku bat izan zezaten. La Kaxita gaztetxetik antolatu zuten dena.

«Abuztua zen eta mundu guztia oporretan zegoen. Gero Udala, Diputazioa, Eusko Jaurlaritza eta ministerioa azaldu ziren, eta 25entzako lekua jarri zuten, baina 50 eta 100 lagun artean heltzen ziren egunero, nahiz eta beste hainbestek ere alde egiten zuten. [...] Oso hilabete latzak izan ziren, harik eta 3 edo 4

hilabetera, erakundeek bitartekoak jarri zituzten arte. Urte bukaerarako 60, 80 eta 100 lagunentzako lekua lortu genuen, eta egun osoa pasatzeko aukera ere bai. Urrian, gutxi gora-behera, zertxo bat haserretu ginen, izan ere, egoera ezkututzen ari ginen, La Kaxita geltoki ondoan baitzegoen. Handik alde egitea erabaki genuen beraz, eta bulegora aldatu genuen, udaletxe-plazara bertara ekarri genuen. Hori 2018ko urrian izan zen eta hemen jarraitzen dugu».

Elkartek uda hartan harreraren alde izandako mobilizazioa azpimarratu dute. Kolektiboen parte-hartze handia izan zen eta pertsona asko aritu ziren iristen zirenen oinarritzko beharrak asetzeko lanean:

«Horrenbeste jende etortzen zenean hasi ginen egoera ikusarazten; plaza bete-bete zegoen, hemen egiten genituen gosariak, baita afariak ere, lagun askok laguntzen gintuzten... Lehen hilabeteetan behar guztiak asetzeko adina genuen: merkatariak, jendeak, denek parte hartzen zuten... Ederra izan zen. Jendearen erantzunik gabe ezingo genukeen. [...] Egia da, halaber, jendea desmobilizatu egin zela oinarritzko behar horiek ase behar ez zirenean. Gauza oso puntualetan izena ematen zutenak zeuden, bazkari bat antolatzeraz adibidez, baina arratsalde bakar batez baino ez. Orain dela bi urte baino jende gutxiago dabil une honetan, larrialdi humanitarioa ez delako hain grabe» (Irungo Harrera Sarea).

Irunen kasuan, hasierako harrera hura egunero muga zeharkatzen saiatzen diren migratzaileei informazioa emateko eta artatzeko zerbitzu bilakatu zen. Erreferentzia gunea bihurtu da zerbitzua:

«Funtsean, hemen egiten duguna zera da: haien jatorrizko herrialdeetan erabat ezberdinak diren gauzen inguruko eta muga zeharkatzeari buruzko informazioa eskaintzen diegu. Hau da Irungo Harrera Sarearen bulegoa, informazio-gunea, mahai bat eta lau aulki kalean. Gautxori izeneko beste talde bat dago. Gauero autobus geltokira joaten gara eta migratzaileak Gurutze Gorrira eramatean arduratzen gara. Egunero, astelehenetik igandera, bi urte luzez. 30 bat lagun izango gara lanean ari garenak. Arropa biltegia ere badugu, baina orain, pandemia dela eta itxita dago. Eta komunikazio- eta ekintza-lantaldeak».

Egoera berria da. Euskal Herria igarobide bihurtu da, eta, kuantitatiboki, aurretik bizi izan ez den egoera da hau. Herritarren mobilizazioaren

eraginez eta gizarte-erakundeen eskaera kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak Kontingentzia Plan bat jarri du abian Euskadira heltzen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko, Gurutze Gorriarekin koordinatuta. Larrialdiko ostatuak eskaintzen ditu zerbitzu horrek, zeinak 2018ko ekainetik 2019ko martxora, behar ezberdinak zituzten 8.662 lagun artatu baitzituen. Denek, hala ere, ez dute aterpe beharrik. Euskal erakundeen eta Gurutze Gorriaren arteko lankidetzak hori Koordinazio Mahai baten bidez bideratu da. Mahai horretan, CEAR eta Zehar (garai hartan CEAR-Euskadi) elkarteek gisako erakundeek ere parte hartu zuten.

Etorritakoen gorakada eta herritarren harreraren aldeko mobilizazioak ere *mugaz bestalde* nabaritu zituzten, Baionan. Bereziki nabarmentzekoa da, 2018an sortu zuten Pausa zentroa, kudeaketa publikoa zuena atzetik, eta gizarte-erakundeen parte-hartze zabala izan zuen 2020 urtearen amaierara arte. Hala kontatu dute Etorkinekin elkarteko Amaia Fontangek eta Diakité elkarteko Lutxi Bortayrouk.

«2018a baino lehenago ere bazen Etorkinekin elkarteak. Urte hartan, ordea, Italiako sarbidea itxi zutenean, ikusi genuen Baionara heltzen zirela migratzaileak. Ordura arte bide horrek ez zuen berebiziko garrantzirik izan. Autobusetik jaitsi eta beste bus batzuen zain geratzen ziren. Negu hartan hotz egin zuen. Jendea mobilizatu egin zen eta mantak, janaria ematen zizkieten, telefonoak kargatzen laguntzen zieten etab. Luzerako izango zela ohartu ziren eta antolatu egin ziren. Azaroan deialdia egin zuten udaletxe aurrean egoeraren berri emateko [...] Alkateak berehala eskaini zuen lokal bat. Baina txiki geratuko zela konturatu ginen, jende asko iristen baitzen. Hiru astera beste espazio bat eskaini zigun. Orduan sortu genuen Diakité elkarteak [...]. 2018ko azaroan, [alkateak] lokal hau proposatu zigun. Pausa izena du. Argi genuen igarobide-espazio bat behar genuen aterpea eman ahal izateko Espainiako Estatutik Baionara heltzen, eta bidean aurrera egiteko zain zen jendeari. Hasieran 150 eta 230 lagun artean ginen egunero. Lan handiko negua izan zen, baina oso giro jatorra genuen. Aldagelak eta garbitegia ere jarri genituen. Boluntarioek arropak jasotzen, garbitzen, josten eta banatzen zituzten. Billeteen prezio merkeenak topatzen laguntzen genien. Gero,

alkateak agindu zuen autobusak Euskaldunen Plazako geltokiaren ordeez, Pausa gunearen parean gelditu zitezela. Jatekoak prestatzen genizkien eta geltokira laguntzen genituen, haien bidaian segi zezaten».

Euskal Herritik Frantziara eta Europako beste herrialdeetara joateko migratzaileen eta errefuxiatuen zeharkaldiei dagokienez, 2018a aurrekaririk gabeko urtea izan zen. Baina egoera hura nazioarteko babesaren behar zuen jende-etorrerarekin batera iritsi zen. Ez zen Euskadiko kontua, Europa osokoa baizik.

Egoera, aurretik ere, zaila zen errefuxiatuak laguntzen genituen elkarteentzako, baina are zailagoa izan zen erronka laguntza humanitarioari zegokionez. Hegoaldeko mugatik Frantziako mugarako bidea egiten ari zirenen beharrak Venezuela, Kolonbia, Honduras eta Erdialdeko Amerikako beste herrialde batzuetatik ihesi zetozen beste pertsona batzuenekin elkartu ziren.

2017an, ia 1.000 lagunek eskatu zuten asiloa Euskadin (592k Bizkaian, 258k Araban eta 121ek Gipuzkoan), aurreko urteetako zifren bikoitza. 2018an, berriz, 1.595 izan ziren Euskadin babesaren lortzeko izapideak egin zituztenak (973 Bizkaian, 385 Araban eta 237 Gipuzkoan). 2019an, zifra hirukoiztu egin zen, orotara, 4.827 eskakizunekin. Etengabeko gorakadan ari zen, baina COVID-19aren eraginez mugak itxi zituztenean erabat eten egin zen. Datuok, Zeharretik jada adierazi izan dugun moduan, ez ziratekeen esanguratsuak baldin eta Espainiako Estatua ez balitz, historikoki, Europar Batasunaren eskaera-tasa eta asilo-eskubidearen aitortze-tasa txikienak dituzten herrialdeen artean egongo.

2018an, CEAR eta Zehar elkartearen artean 1.322 eskaera kudeatu genituen Euskadin nazioarteko babesaren eskatzen zutenentzako (764 gizon eta 558 emakume) Estatuko harrera-sisteman sartzeko. Gainera, asilo-profila zuten 6.000 pertsona artatu genituen. Asilo-eskaera egiteko elkarriketaren zain hilabeteak egon behar izaten da, eta plaza esleitu arteko itxaronaldi luzeak egon ohi dira. Hala bada, 2018ko erdialdetik aurrera, xede horretarako baliabideetan txandakatze-falta izan zen eta, ondorioz, kolapsoa.

2018ko urrian, Larraña Etxea Harrera-etxea zabaltzea lortu genuen, Oñatin, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta GGEEen Zuzendaritzaren diru-laguntzari esker. Zentro horrek 100 egoiliarrentzako edukiera. Harrera-etxea sortu zen nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako Estatuko harrera-programan sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten edo Estatuko harrera-sistema horrek eskaintzen dituen plazetan sartzeko zain dauden asilo-eskatzaileei erantzuteko. Itxaronaldi hori urtero luzatzen da, Estatua ez baita gai beren herrialdeetatik ihesi datozenak hartzeko behar den erritmoari erantzuteko.

Larraña Etxea egoera hori arintzeko sortu zen, eta udalarekin, gizarte mugimenduekin eta auzokideekin elkarbizitzaren eta lan koordinatuaren adibide garbia izan da. 2019ko abuztuan, Zuloaga Txiki aterpetxea ireki zen, 35 pertsona hartzeko edukierarekin, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin eta Tolosako Udalaren laguntzarekin.

Era berean, nazioarteko babesa eskatzen dutenei Estatuko harrera-sistemak aurreikusten ez dituen errealitateei erantzuteko, harrera programa indartzeko lanean aritu gara, 2019ko hasieratik bikoiztu egin baitira bertako plazak.

Ipar Euskal Herriaren kasuan, erronka asko daude oraindik nazioarteko babesaren defentsan eta nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatuei arreta eta laguntza emateko arloan. Are konplexuagoa da egora eskatu egiten ez dutenentzat. Migratzaileek eta nazioarteko babes-eskaera ukatzen zaienek —izapideak hasten dituzten gehienek— murrizketa larriak jasaten dituzte eskubide eta gizarte-zerbitzuetarako sarbidean.

Kasu askotan, hutsuneei erantzun azkarragoa ematen zaie hasieran, gizarte-erakundeetatik sortzen diren proiektu kolektiboengatik. Hala da Baionako Etorkinekin elkarrearekin. Harrera-baliabiderik ez dagoenez, eta kalean gero eta jende gehiago dagoenez, harrera-programa abiatu dute etxe partikularretan. Egoera zaurgarrienetan dauden pertsonak sartzen dira bertan, hala nola seme-alaba txikiak dituzten emakumeak, ibilbide oso arriskutsu eta bortitza bizi izan duten emakumeak, gaixoak, nazioarteko

babesa eskatu duten pertsonak edo asilo-eskaera ukatzeagatik administrazio-errekurtso edo errekurtso judizial bat ebatzea espero dutenak.

Etorkinekin elkartetik azaldu dutenez, gero eta hedatuagoak dauden premia-egoerei aurre egiteko irtenbideak bilatzen ari dira etengabe, hala nola, pisuen alokairua edo etxebizitza izateko aukerak. Baliabide material urriak izateaz ez ezik, migratzaileek eta errefuxiatuek helmuga-gizartean izan behar beste oztopo batzuei ere egin behar diete aurre. Arrazakeria eta aurreiritzietan oinarritutako diskriminazio-molde desberdinak dira garrantzitsuenetako bat, gizarteratzeko eta eskubideak eskuratzeko aukerak izugarri murrizten baititu.

«Pertsona horiek bizpahiru hilabetez hemen geratuko balira, haiekin lan egin ahalko litzateke, eta orientazio pixka bat eman geniezaieke beren bizitzak nolakoak izan zitezkeen. Nik uste dut batzuek erabakiko luketela geratzea, integratzea eta herritarren parte izatea. Lan egin eta hemengo gizartearekin elkarlanean aritzea. Gizarte hau haien hasierako helburua ez bada ere. Hemen jasotzen duten harreraren arabera da. Izan ere, orain arte Euskadira heltzeak ez zuen arriskuaren amaierara iristea esan nahi. Frantzia sartzeko arriskua ere hartu behar zuten, baita Frantzia segitzekoa ere, edota Ingalaterran saiatzekoa. Hau da, ez da bukatzen... Hortaz, hemen ondo baldin badaude, zertarako hartu arrisku gehiago?» (Lidia Kinson)

Muga horretan lan egiten duten elkarteek beharrezkotzat jo dituzten hainbat neurri proposatu dituzte migratzaileek eta errefuxiatuek eskubideak eta bizitza duin bat izan ditzaten. Haientzat, premiazkoena erregularizazio-prozesuak aldatzea da. Izan ere, pertsona ugari hiru urtez egoera irregularrean bizi dira, eta ezin dute lan-kontratu formalik izan tarte horretan. Hauek dira elkarteek eskatzen dituzten eskubideetako batzuk:

- Elkartzea ahalbidetzen duten espazioak eta dinamikak sortzea.
- Erakunde publikoek egonaldi ertainetarako bizilekuak abian jartzea, eta erakunde horiek integrazioa lantzen duten erakundeekin lankidetzan aritzea.

- Arrazakeriagatiko bazterkeria zigortzen duten neurriak aplikatzea, bereziki instituzioetatik datorrenean.

«Instituzioen arrazakeria amaitu egin behar dugu. Erakunde publikoek irmoak izan behar dute. Dagoeneko arrazakeria delitua dela esaten dute, baina aplikatu behar da, eta zigortzen dela jakin behar dugu. Jende askok ez baitu salatzen, eta, beraz arrazistak izaten jarraitzen dute. Eta jende askok konturatu gabe egiten du. Beste batzuek trufatzeko. Baina horrek ere hil egiten du. Arrazakeriak sortzen duen arbuioa hilgarria da» (Lidia Kinson).

Era berean, migratzaileen eta errefuxiatuen agentziak bultzatuko duen eta asimilazionista izango ez den integrazioa sustatzeko moldeak eztabaidatzeko beharra planteatu dute:

«Integrazioari buruzko gogoeta bultzatu behar dugu, hau da, ez integrazioa ez da asimilazioa. Integrazioak ere “haiekin egitea, ez haientzat” esan nahi du. Badakigu ez dela erraza. Haiei galdetuz gero, “nola parte hartu dezakezu zuk ere eragilean?”, gehienek honako hau erantzuten dute: “Nik nire arazoa dut”. Nik uste haiekin lan egitea posible dela. Gauza batzuk egiten ditugu, ez dira nahikoak, ordea. Baina sinbolikoa izaten da sarri. Pentsatu behar dugu nola bihurtu haiek benetako eragile. Berebizikoa da Euskal Herria harrera herria izan dadin» (Amaia Fontang, Etorquinekin).

Muga zeharkatzea

2018az geroztik nabarmen murriztu da etorrera kopurua, batez ere 2020ko martxotik aurrera, COVID-19aren krisian ezarritako mugikortasun murrizketen ondorioz. Hala eta guztiz ere, oraindik ere jendea iristen da Irunera, muga pasatzeko asmoz. 2021eko lehen hilabeteetan, Kanaria Uharteetan atxikita zeuden migratzaileak eta errefuxiatuak penintsulara lekualdatzearekin batera, Frantziako aldera iristen saiatzen diren talde ugari ikusi dira berriz ere.

Otsaila amaieratik irailera bitartean, Irungo Harrera Sareak Frantziarako bidean zeuden 3.000 pertsona baino gehiago artatu zituen (soilik urrian 600

pertsona). Litekeena da muga hori zeharkatu duten pertsonen kopurua askoz ere handiagoa izatea; horregatik, mugatik soilik 40 km-ra dagoen Baionako aterpeak hilerok egin dituen arretak adierazten dituzte.

Urriko azken asteetan gora egin zuen muga zeharkatzen saiatzen diren pertsona kopuruak: Irungo Harrera Sareak 110 pertsona artatu zituen egun bakarrean. Harrera Sareak adierazi du, gainera, emakumeen kopuruak ere gorakada oso nabarmena izan duela, gaur egun pertsona guztien % 40 izateraino (duela hilabete gutxi % 5 baino ez ziren).

Irunera iristen diren pertsonak gero eta zailtasun handiagoak dituzte muga zeharkatzeko; Frantziak, lehen adierazi dugunez, mugak kontrolatzeko politikak gogortu ditu 2015etik aurrera, justifikazio gisa terrorismoaren aurkako borroka baliatuta, eta, berrikiago, COVID-19aren pandemia. Diskriminazio-kontrolak etengabeak dira garraioan eta Hendaia tren geltokian, eta itzulketak egiten ari dira kontuan hartu gabe nazioarteko babes-beharrak dituzten ala ez, eta babes eskatzeko eskubidea bermatu gabe.

Mugako pasabideak ixten dituztenez eta pertsonentzako igarobide segururik ez dagoenez, ezkutatzera behartuta daude Frantziako Poliziak ez ditzan atxilotu eta itzularazi, eta, hala, gero eta bide arriskutsuagoak hartzen dituzte. Horrek, beren bizitzak arriskuan jartzeaz gain, osasun mentalean ere inpaktu larriak ditu, eta helmugara iristen direnean integrazio-prozesua zailduko die. Irungo Harrera Sarearen arabera, Irungo blokeoaren ondorioz urduritasuna eta ondoez emozionala pizten ari da bidearekin jarraitu ezin duten pertsonen artean.

Kontrolak saihesteko, bide klandestino askoz arriskutsuagoak erabiltzen ari dira batzuk, Bidasoa ibaia igerian zeharkatzea, esaterako. Saiakera horretan, bi afrikar gazte ito ziren 2021eko maiatzean eta abuztuan. Apirilean beste gazte bat, eritrearra, hilda aurkitu zuten ibai ondoan, bere buruaz beste egin izanaren zantzuekin. Heriotza horiez gain, urrian hiru mutil aljeriar hil ziren Ziburun tren batek harrapatuta, trenbidean lo zeudela. Pentsatzekoa da egoera aldatu ezean, jende gehiagok bere bizitza arriskuan jarriko duela edota gure lurraldean bertan dagoen muga batean hilko direla.



Irun eta Hendaia arteko mugan itzulketak egitea ez da fenomeno berria, aitzitik urteak dira hori gertatzen dela. Malagako akordioa 2002an sinatu zuten Frantziako eta Espainiako estatuek, eta 2003tik dago indarrean; akordio horren arabera, alde kontratugile bakoitzeko mugako agintariek berehala onartuko dituzte beren lurraldean atzerritarrak, hirugarren herrialde bateko nazionalak, baldin eta muga komuna legez kanpo igaro eta hurrengo lau orduetan aurkezten badituzte beste aldeko mugako agintariek.

CEAREk (2018) dioenez, *«errealitatearen erradiografia zehatza eskaintzen duen zifrarik ez dagoen arren, Frantziako mugako poliziaren arabera, Espainiaren eta Frantziaren arteko mugan 9.175 migratzaile irregular errefusatu ziren 2017an»*. Zifra horretara (9.083) iritsi ziren 2018ko lehen 9 hilabeteetan; 2017ko aldi berean baino % 26 gehiago. «Ez-onarpen» horietako gehienak Irungo mugan gertatzen dira.

Mugan errefusa hauetako asko, SOS Arrazakeria-Gipuzkoa aipatuz, CEAREk adierazi duenez, inolako bermerik gabe egiten dira, idatziz formalizatu gabe edo Espainiako Poliziari entregatu gabe Txosten berean, antolakundeak azpimarratzen du itzulketa horien artean, zeinak Frantziako eta Espainiako Barne ministroek onartzen dituzten, *«adingabeak egon daitezkeela, baita salerosketaren biktimak eta asilo-eskatzaileak ere. Mugaren beste aldean, CIMADEk adierazten du Frantziako mugetako egoerak agerian uzten duela, beste behin, EBren beraren mugen itxiera progresiboa»*.

Elkarriketatutako antolakundearen arabera, gaur egungo legezkotasunetatik harago doazen auzi ugari daude, zerikusia dutenak garraioetan eta Hendaiaiko tren geltokian egiten diren kontrol diskriminatzaileekin. Azaldu dutenez, batzuetan Frantziako Poliziak muga zeharkatzen du atxilotuak itzularazteko. Berriki, EBko Justizia Auzitegiaren epai batek ebatzi du ezin direla erabili Frantziak terrorismoari aurre egiteko ezarri dituen muga-kontrolak legez kanpoko etorkinak aldameneko herrialdeetara bizkorrago itzultzeko^[10].

.....
[10] Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, 2019ko martxoaren 19ko epaia, Préfet des Pyrénées-Orientales / Abdelaziz Arib, C-444/17, EU:C:2019:220.

«Frantziako poliziak egunero itzularazten du jendea. Bi itzulketa mota daude, komatxo artean... "Legea" eta "alegala". Lehenengoa: dokumentaziorik ez duen migratzaile bat atzematen badute, atxilotu eta Espainiako poliziari deitzen diote muga jasotzeko. Espainiako polizia gai da egunean halako 6 edo 8 kasu kudeatzeko, ez gehiago. Beraz, praktikan, oso jende gutxi itzularazten dute baldintza horietan. Hala ere, ia inori ez dizkiote gutxieneko eskubideak bermatzen, hala nola abokatu bat ematea, etab. [...]. Baina ohikoena da zubira eramatea eta besterik gabe kanporatzea. Hori egunero gertatzen da, jende gehiago edo gutxiagorekin. Schengen lurraldea da, nahiz eta Frantziak mugimendu askea itxi duen terrorismoaren aurkako kontuarengatik, eta, terrorismoaren aitzakia hartuta, kontrolatzen dituztenak migratzaile beltzak dira» (Irungo Harrera Sarea).

Modu horretan itzularazten dituzten pertsona asko berriro saiatzen dira, are biharamunean ere.

«Denbora luzez egon dira jendarmeak jendea zubian harrapatzen eta itzularazten, eta hortxe uzten dituzte. Legearen arabera, polizia batetik bestera joan behar dute. Azken itzulketak, bai, poliziatik poliziara izan dira; kanporatze paperarekin heldu dira. Batzuk beldurtu egiten dira. Baina bai, azken itzulketek legea jarraitu dute. Hemen, poliziak, komisaldegira eramaten ditu, denbora asko galarazten diete, eta kitto... Hemen Polizia Nazionalek, Guardia Zibilak, denek dakite zer egiten dugun. Zenbaitetan berandu kaleratu dituzte, eta plazara joateko esan diete, hor laguntza emango genielako».

Migrazio- eta asilo-politika Frantzian

Frantziara pasatzea lortzen dutenek oso berme gutxiko migrazio- eta asilo-politika topatzen dute, azken urteotan Frantziako Estatuak gero eta arau murriztaileagoak garatu dituelako. Frantzian, migrazioa eta asiloa arautzen dituen legea Atzerriarren Sarrera, Egonaldia eta Asilo Eskubidearen Kodea da (*Code de l'Entrée et du Séjour des Étrangers et du Droit d'Asile* -CESEDA-). 2021eko

maiatzera arte, lege horrek delitutzat jotzen zuen Frantziako lurraldean modu irregularrean sartzea, eta espetxe zigorra eta 3.750 euroko isuna zehazten zituen. Era berean, ordura arte, atzerritar bati Frantzian modu irregularrean sartzen, igarotzen edo egoten laguntzen zionari bost urteko kartzela zigorra eta 30.000 euroko isuna ezartzen zioten. Irregularlari sartzen laguntzeko delituari dagokionez, ez zen salbuespenik aurreikusten laguntzaren xede humanitarioaren ondorioz.

Behin Frantziako lurraldean, migrazio irregularra prebenitzeko eta kanporatzeko politikek mugatzen dituzte asiloa lortzeko aukerak. CEAREk adierazi duenez, *«1980az geroztik 16 lege aldarrikatu dira Frantzian asilo-eskubidea eskuratzeari eta gauzatzeari dagokionez, baina hurrenez hurreneko gobernuek, joera ideologikoa alde batera utzita, antzeko migrazio-politika garatu dutela dirudi, zeinak bereizgarri dituen mugen kontrola eta kanporatzeak. Azken hamarkadan, Frantziak alde biko akordioak sinatu ditu Afrikako ia hamar estaturekin, besteak beste, Kamerun, Senegal eta Tunisiarekin, bertako pertsonak berriz har ditzaten. 2017an, akordioak sinatu zituen Albania eta Afganistanekin, alegia, Frantziako asilo-eskatzailen jatorrizko bi herrialde nagusiekin»* (CEAR, 2018).

Egia bada ere 2020an 81.669 asilo eskaera erregistratu zirela eta 2019an 138.420, % 40ko beherakada hori koiunturala, eta, batez ere, COVID-19aren krisiaren ondoriozkoa. Izan ere, Frantzian nazioarteko babes eskaerak areagotu egin dira azken urteotan, joera globalekin bat eginez. Igoera horren aurrean, giza eskubideen aldeko antolakundeek salatu dute harrera eta inklusiora zuzendutako baliabideak ez direla nahikoak.

Frantzian, errefuxiatu-estatutua edo babes subsidiarioa lortu duten pertsonak bakarrik eskura ditzakete gizarteratze programak. Asilo eskaera ebatzita ez duten pertsonak egoera zaurgarri eta oso zailean jartzen ditu horrek, zenbait eskubide eskuratzeari dagokionez. Ondorioz, azken urteotan kaleko kokalekuak areagotu dira Paris bezalako hirietan, *«non hainbat egoera administratibotan dauden migratzaileak eta errefuxiatuak biltzen diren»* (CEAR, 2018).

Giza eskubideen aldeko antolakundeak kezkatuta daude bakarrik dauden adingabeen areagotu direlako, eta horietako asko kalean bizi direlako. Era berean, nabarmentzen dute pertsona asko beste estatu kide batzuetara transferitzen dituztela Dublin III Erregelamendua aplikatuta, zeinak zehazten duen EBko estatu arduratzen den asilo-eskaeraren tramitazioaz eta, praktikan, sarrera irregularreko lehen estatua izan ohi da^[11]. CEAREk (2018) adierazten du 2017an 29.240 asilo eskaera bideratu zirela prozedura honen bidez, Frantzia aurkeztutako eskaera guztien laurdena, gutxi gorabehera. Dena den, lekualdaketa eraginkorrak oso gutxi izan dira: 2017an 2.633 baino ez ziren izan, eta helmugako herrialde nagusiak Italia, Alemania eta Espainia ziren. Lekualdaketa-epea amaitzearen ondorioz, nagusiki, hartzen du Frantziak bere gain eskaeraren erantzukizuna. Ondorioz, 2017an, ohiko prozedurara bideratu ziren ia 20.000 asilo eskaera, hasiera batean Dublingo prozeduraren bidez izapidetu zirenak.


CIMADEk adierazi du informazio argirik ez izatea oztopo handia dela Frantziara iristen diren pertsonen nazioarteko babesa eskuratu ahal izateko:

«Beldur dira mehatxuak eta armak ikusi dituztelako, eta beren herrialdetik ihes egin dute. Baina ezin izango dute froga nahikorik eman asiloa eskuratzeko. Ezin dute ulertu nazioarteko babesa emateko beharrezkoa den guztia. Frantsesek apur bat hitz egiten dute, inoiz ez gaztelaniaz, Espainiatik pasatu dira eta ziurrenik poliziak galdetu die ea asiloa eskatu nahi ote zuten, eta ezetz ala baietz erantzun dute... Baina, oro har, ez dakite zer erantzun duten. Eta hona datoz eta egoera oso zaila da beraientzat, ez dute integratzeko aukera askorik, Espainiatik pasa eta "dublindu" [itzularazi] egingo dituztelako, edo asiloa eskatu dute eta urte eta erdi itxaron behar dute berriro eskatu ahal izateko, eta ez dakite hori» (CIMADE).

.....
[11] Dublingo erregelamenduak, Europar Batasunak 2013an onartutakoak, irizpideak eta mekanismoak ezartzen ditu hirugarren herrialde bateko edo aberrigabe bateko herritar batek estatu kide batean aurkeztutako nazioarteko babes-eskaera aztertzeko ardura duen estatu kidea zehazteko. Honako hau da hondar-araua: eskatzailea estatu kide batean modu irregularrean sartu dela frogatuz gero, sartu den lehen estatu hori izango da eskaera aztertzeko ardura duena.

Bestalde, CEAR-en txostenak (2018) honako hau dio: *«Dublin prozedura aplikatzen zaien asilo-eskatzaileetako asko, beren eskaera aztertzeko ardura duen estatura itzuli nahi ez dutenak, ezkutuan biltzen dira Frantziako iparraldean, Erresuma Batuko mugatik gertu, bertara joateko asmoz»*. Antolakunde sozialek salatu egin dituzte Nord-Pas-de-Calais eskualdean sortu diren kokalekuetan zain dauden pertsonak bizi dituzten baldintza penagarriak, Mantxako kanaletik eta Erresuma Batuko mugatik gertu.

Baldintza horien salatu dituzte ere Parisko kokalekuetan. CEAREk (2018) azpimarratzen du *«kaleko egoeran dauden migratzaileek jasotzen duten tratua: askok adierazten dute segurtasunik gabe sentitzen direla eta paristarren aldetik indarkeria fisikoa eta abusu berbalak zein sexualak jasan dituztela, eta, ondorioz, are beren buruaz beste egin dutela batzuek. Prekarietateaz gain polizia indarkeria aipatzen dute, hala nola Human Rights Watch antolakundeak salatu dituztenak. Bertan dauden pertsonak diotenez, errutinazko sarekadak egiten dituzte, kokaleku txikiak suntsitu, kanpin-dendak eta mantak lapurtu, eta batzuetan gas negar-eragileak erabiltzen dituzte eta jo egiten dituzte»* bertan bizi direnak. Miaketa horietan, pertsona-taldeak atxilotzen dituzte Atxilotze Zentro Administratibo delakoetan sartzeko eta itzularazteko. Mugako Poliziak kudeatzen dituen espazio horietan migratzaileak eta asilo-eskatzaileak atxilotzen dituzte, askatasunik gabe, nahiz eta arau-hauste administratibo hutsa egin duten. Giza eskubideen aldeko antolakundeek ere salatu dute bertan ez dagoela mekanismorik egoera zaurgarrian dauden pertsonak identifikatzeko.



Amnesia kolektiboaren aurka,
babesa

Atzera begiratuta, historiak marrazten dituen lerro eta kiribilei begiratuta, errazagoa da oraina hobeto ulertu eta harengan jardutea. Horixe izan da argitalpen hau hartzen duen *Mugak*^[12] proiektuaren helburuetako bat. Izan ere, argitalpen honek, iraganaren helburu analitiko hutsa izan gabe, Euskal Herriaren memoria historikoa berreskuratzea proposatzen du, kontzientzia eta elkartasun ariketa gisa migratzaileen eta errefuxiatuen bilakaeran, atzora arte ihes egiteko leku zen lurralde batera iristen baitira gaur egun. Bestela esanda, erbestearen historia gogoratu nahi izan dugu, babesa ematen duen oraina aldarrikatzeko.

Lan honetan zehar, saiatu gara hainbat garai eta egoeretan migratutako pertsonen ibilbideak marrazten eta narratibak partekatzen. Migrazio-prozesu horiek hurbildu, eta, aldi berean bereizten dituzten antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertu ditugu. Izozmendiaren tontorra Espainiako gerra zibila izan da, ondorengo diktadura eta gertakari horiek euskal biztanleriaren exodoan izan zituzten ondorioak. Orduan, milaka emakume eta gizon, neska eta mutil, lehorrez eta itsasoz abiatu ziren, izuaren eta miseriaren erregimena zelatan zutela. Horietako asko Frantziara eta Mexikora joan ziren bizitzera, alegia, gaur egun, beste jatorrietako pertsonen igarobide eta helmuga izaten jarraitzen duten herrialdeetara; batzuetan askoz ere bide luzeagoak egiten dituzte, eta gure garaikideak diren beste gerra eta indarkeria batzuen ondorioz desplazatzen dira.

Denbora tarte honetan, migrazio eta babesaren historiaren gorabeherak ulertu nahi izan ditugu. Espainiako gerra zibilaren ostean, Francoren diktadurak lau hamarkada behar izan zituen amaitzeko; Bigarren Mundu Gerra amaitzearekin itzali ziren Europako beste erregimen totalitarioen aldean, askoz urte gehiago iraun zuen. XX. mendearen bigarren erditik hasita,

.....
[12] Mugak: Mexikotik Euskal Herrira. Mugak zeharkatuz erbesteko eta harrerako esperientzietan zehar.

gerraosteko garaiak orrialde berri bat ireki zuen giza eskubideen historian, nazioarteko deklarazio eta itunetan kristalizatu zena. Estatuak, orduan, zuzenbidearen subjektu gisa aitortu zituzten pertsonak, edozein zela ere sorlekua, nazionalitatea, arraza, sexua, erlijioa edo beste edozein arrazoi diskriminatzaile.

1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eskubide gisa aldarrikatu zuen asiloa bilatzea eta aitortzea. Handik gutxira, 1951n, eskubideen alorreko beste mugarri bat izan zen Errefuxiatuen Estatutuaren Konbentzioa onartzea, nazioarteko babesa emateko Europatik ihesi zihoazen pertsonei, diktadura faxistek jazarrita eta gerraren krudelkeriak eta suntsipenak setiatuta. Konbentzioa inspiratzen duen aginduaren ondorioz, urte batzuk geroago, New Yorkeko 1967ko Protokoloa onartu ondoren, babesa Europatik kanpo zabaldu zen, edozein unetan eta jatorrizko edozein lekutatik ihes egitera behartutako pertsona guztiei.

Zalantzarik gabe, funtsezko aurrerapena da nazioarteko tresna juridikoetan giza eskubideak txertatzea. Hala ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak berak aitortzen duen arren zirkulazio aserako eta edozein herrialdeetatik —norberarena barne— irteteko eskubidea, migratzaileen eskubideak ez dira garatu giza eskubideen nazioarteko esparruan, eta legitimatu egin da eskubide horiek estatuen interes ekonomiko eta politikoetara baldintzatzea.

Errefuxiatu-estatutuaren aldean, migratzaile kategoria mugak borondatez zeharkatzen dituen norbaitekin lotzen da, eta egotzi egiten zaio —desplazamendu horiei buruz zabaldua dagoen iruditeriaren arabera— erabaki-tartea izatea eta aukera ekonomikoen bilaketa motibazio nagusi gisa.

Hala ere, errefuxiatuen eta migratzaileen arteko bereizketa legala, itxuraz argi dagoena teorian eta nazioarteko itunetan, praktikan lausotu egiten da kausei erreparatzean. Giza mugikortasunaren fenomenoak aztertzeke eta sailkatzeke orduan, ez dira kontuan hartu 1948ko Adierazpenaren oinarriak zabaldu zituzten eskubide-belaunaldi berriak —bizitza duina, beldurrik gabea eta miseriarik gabea izateko eskubidea adierazten dutenak—.

Egitateetan, zirkunstantziek borondatea murrizten dute. Gaur egun, pertsona asko desplazatzen dira eskubideen urraketa sistematikoagatik, demokrazia hauskorretako gobernuen arbitrariotasun eta ustelkeriagatik, diskriminazio eta indarkeria heteropatriarkalagatik. Baina baita pobrezia ekonomikoagatik ere, zeinak eredu kolonial zaharren arrastoa duen, baita baliabideak agortzen dituzten multinazionalen estraktibismoa, ingurumenaren degradazioa, eta natura eta bizitza prekarizatzen dituen klima-aldaketaren arrastoa ere.

Euskal Herritik ihesi joandakoek atzo zeharkatu zituzten mugak leku berean daude oraindik, garai berrietara moldatu eta egokitu dituen historiaren menpe. XX. mendearen amaieran, globalizazio prozesuak ezarritako munduaren idealari jarriki, mugek garrantzia galdu zuten segregazio-elementu gisa. Hala ere, ikus daiteke mugen formak aldatu egin direla, eta, zenbait zentzutan, mugen hesi-funtzioa indartu egin dela.

Paradoxikoki, 1989an Berlingo harresia bota zenetik, 1.000 kilometro harresi fisiko^[13] eraiki dira Europan pertsonen etorrera geldiarazteko; harresi horiek osatu egiten dute gure mugak beste era batera inguratzen dituzten hedapen burokratiko, teknologiko eta polizial izugarria. Harresiak froga materiala dira, nabarmena, erakusten dutenak mugarik gabeko globalizazioaren idealak ez duela pertsona guztientzat balio; desparekotasunak iraunarazten dituzten interesen mende dago, zeintzuek, bereziki, Iparraldearen eta Hegoalde Globalaren arteko bereizketa areagotzen duten. Ceuta eta Melillako hesiak banaketa horren adibide paradigmatico eta nabarmena dira. Baita AEBen eta Mexikoren arteko muga ere. Europako Batasunaren barruan ere, antzeko logikak zuzentzen ditu barne-mugen abolizioa eta Schengen Esparruko zirkulazio askatasuna. Hala, Irun eta Hendaia arteko mugara hurbildu ahala, ikus daiteke oraindik ere hesiak eraikitzen direla, hala nola segurtasun nazionalaren gisako argudio anbiguoetan oinarrituta, baita jatorria edo azalaren kolorea bezalako faktore arbitrarioetan ere.

.....
[13] 2018an argitaratutako Delàs Center for Peace Studies zentroaren datuen arabera.

Behin-behineko ezberdintasunetatik harago, beren testuinguruan berezitasun nabarmenak dituzten espazioetara zuzendu dugu arreta. Tokiko berezitasunez jabetuta, alde batera utzi gabe Euskal Herriak Frantziarekin eta Mexikok AEBekin dituzten mugen arteko asimetriak, identifikatu egin ditugu Atlantikoaren alde bateko eta besteko migrazio-kontrolaren politika garaikideen azpian dauden logika eta dinamika komunak.

Mugikortasunaren garai hauetan, mugimendu guztiak ez dira «*desiratuak*». Mugak, gaur egun, kontrol sozialeko gailu selektiboak dira mugitzen diren pertsonentzat. Mugen kontrola deslokalizatu egin da, esternalizazio-politiken bidez kanpora bidalita. Politika horiek, batez ere, Iparraldeko estatu globaletan hedatu dira, migrazioa eta babesa kontrolatzeko inguruko herrialdeekin akordioak eginez, nahi ez dituzten migrazio-fluxuak saihesteko eta jatorrizko eta igarobideko herrialdeetan mantentzeko. Kontua ez da inor ez iristea, kontua da merkatuari eusteko *behar* diren pertsonak iristea, eta beldurtuta egotea, jasango duten eskubide-gabetzea eta prekarizazioa onartzeko prest.

Aldi berean, estatuen barnean beste muga ez-materialak altxatu dira, hain hautemangarriak ez direnak, hala nola arraza- eta etnia-profilen arabera kontrol polizialak, atzerritarrak zentro itxietan atxilotzea, edo bizileku-baimena lortzeko prozedura burokratiko konplexu eta korapilatsuak. Gaur egun mugak ez dira soilik geografikoak, diskurtso politikoetan eta hauteskunde-kanpainetan ere sor daitezke, xenofobia, islamofobia eta arrazakeria bandera dituzten horietan hain zuzen, banaketa-estrategia gisa; hala, sistema politiko eta ekonomikoak berak eragiten dituen desparekotasunen eta bidegabekerien egiturazko kausen gaineko arreta desbideratzen dute.

Denboran zehar, mugek eutsi egin diote estatuak defendatzeko eta beren lurraldeetara sartu nahi duten pertsonak kontrolatzeko rolari. Bereziki, XXI. mendearen hasieran New York, Madril eta Londresko atentatuen ondotik, migrazioa segurtasun mehatxua bailitzan kudeatu izan da, kriminalizazio- eta militarizazio-politikak legitimatuz, zeintzuek oztopatu egiten dituzten nazioarteko babesa bilatzen dutenak edo bestelako arrazoiengatik desplazatzen direnak. Mugak baimenik gabe zeharkatzea

lege-hauste gisa zabaldu da, eta, areago, herrialde batzuetan delitu penala da; hala, espetxe-baldintzetan edo baldintza larriagoetan atxilotzea areagotu eta normalizatu da. Susmopean jarri da are elkartasuna ere; egoera irregularrean dauden migratzaileei laguntzeak zigor-prozedura ekar dezake, baita kondena ere.

Mugen politika murriztaileak areagotzearen ondorioz okertu egin dira migratzaileek eta errefuxiatuek igarotzen dituzten inguruneak. Estatuaren lurraldeetara sartzeko bide legal eta segururik ez egoteak biderkatu egiten ditu itsasoko zein lehorreko bideetako arriskuak; krimen antolatua, trafikoaren eta pertsonen salerosketaren sareak hartuta daude. Bidaia gero eta arrakastuagoak dira giza bizitzaren segurtasunerako, mugitzen diren pertsonen eskubide eta duintasunerako. Mediterraneoko uretan, Mantxako kanalean, milaka bizitza galtzen dira oraindik ere, eta, orain, Bidasoan ere hala izaten hasi da. Hori gertatzen da ere Rio Granden eta Usumacinta ibaian, Sonorako basamortuan eta iparraldera joateko lehorreko zein ureko bideetan ere. Bien bitartean, igarobideetako galera, heriotza eta desagertu horiek zigorgabe geratzera ohitu gara, inork ez baitu erantzukizunik hartzen.

Emakume eta neskato migratzaile eta errefuxiatuek indarkeria espezifiko eta gehigarriak jasaten dituzte hasieratik bide osoan zehar, baita helmugan ere. Mexiko zeharkatzeko, horietako batzuk maskulinizatzaera behartuta ikusten dute beren burua, emakumeak edo neskatoak direla ezkutatzera. Bi testuinguruetan, hala AEBetara nola Europara igarotzean, haien gorputzak dira bidesaria. Igarobidean, mugako agenteen eta segurtasun indarren, trafikatzailerik eta kontrabandisten, bidaideen eta abarren indarkeriaren biktima zuzenak dira emakumeak eta neskatoak. Batzuetan zuzeneko bortxaz, beste batzuetan politika horien ondorioz, behartuta daude euren gorputza azken baliabide gisa erabiltzera, bidean aurrera egingo badute.

Generoak asko baldintzatzen ditu bidaia, migrazio-bidearen esperientzia eta babesaren bilaketa. Arazoak, jatorriko lekuan eta igarobidean ez ezik, iristean ere egoten dira. Helmugako herrialdeetan, babes eta harrera

mekanismoek huts egiten dutenean, betikotu egiten dira emakume eta neskato migratzaile eta errefuxiatuen eskubideak urratzeko arriskuak.

2020tik aurrera, COVID-19aren pandemiak larriagotu egin zituen mugikortasun murrizketak eta mugetako segurtasun politikak munduko ia herrialde guztietan. Aldi berean, desplazatzeko arrazoiak ere biderkatu egin ziren mundu mailan, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko desparekotasunak areagotu zirela nabarmenduta. Europako zein Amerikako testuinguruan, nagusitu egin ziren pandemian babes-mekanismoak eskuratzeko oztopoak eta mugitzeko ezintasuna. Horrek zailtasun handiagoak ekarri zituen migratzeko, baita asilo-eskubidea gauzatzeko eta, ondorioz, harrera-baliabideak eskuratzeko ere; izan ere, administrazio-prozeduretan oztopoak ekarri zituen, eta eragotziz zuen gizarte-zerbitzuak bermatzeko dokumentuak lortzea eta lan-merkatuan baldintza duin eta erregularretan sartzea.

Murrizketa horiez gain, asilo-eskubidea sistematikoki ukatzeko politika dago; Espainiako Estatuan eskaeren %5ek soilik lortzen dute onarpena. Erdialdeko Amerikako iparraldeko herrialdeetan gobernuak pandemia erabili zuten baliabide militar gehiago zabaltzeko, iparralderako joan-etorriak geldiaraztea helburu.

Lurraltera sartzeko mugak, errefuxiatu-estatutuaren onarpen-indize baxua eta bizitzeko modu erregularrik ez egotea oztopo gehigarriak dira migratzaileek eta errefuxiatuek eskubideak erabat erabiltzeko orduan. Migrazio-sistemen labirinto burokratikoak eta asilo-eskubidearen onarpen eta gozamen ia eskuraezinak ostrazismo eta nostalgia sentimenduak eragiten dituzte, osasun fisiko, psikiko eta emozionalean islatzen dena, eta integrazio esperientziak mugatzen ditu. Praktikan, administrazio-prozeduretako itxaronaldi luzeek eskubide-gabetzea eragiten dute, eta horrek proiektua hasteari edo jarraitzeari uko egitea ekar dezake, eta bizitza, askatasuna eta osotasun fisiko zein psikologikoa arriskuan dauden tokietara itzultzea.

Hala ere, desplazamenduak zailtzen dituzten oztopo eta indarkeriaren aurrean, migratzaileek eta errefuxiatuek aldaketaren eragile izaten

jarraitzen dute, deserrotzeari desafio egiten, politika atzerakoiei aurre egiten, gobernuak interpelatuz benetan garrantzitsuak diren balioei buruz. Antolakuntza kolektiboa bidearen gorabeheren aurkako erresistentzia tresna da oraindik ere. Sistema patriarkalaren dinamikak zalantzan jartzeari utzi gabe, emakumeak funtsezkoak dira zaintza-lanak artikulatzeko, biziraupen-baldintzak sortzeko gaitasuna dutenak, bai bidean zehar bai helmugako herrialdera iristean eta baita integrazio-prozesuan ere.

Estatuaren logikaren aurka, gizarte zibilak harrera eta laguntza sareak sortzen ditu, eta elkartasuna kriminalizatzen duten legeak ezeztatu. Sare horiek, behetik ehundutakoak, funtsezko motorrak dira giza mugikortasuna eskubide gisa aldarrikatzeko. Mugetan gertatzen diren eskubide-urraketa larriak salatzeke mekanismoak eratzen dituzte, eta, batzuetan, beren gain hartzen dituzte gobernu-erakundeei dagozkien babes- eta harrera-funtzioak.

Egungo testuinguruek giza mugikortasunean dituzten erronken aurrean, Zehar-etik lanerako dugun konbentzimendua eta bokazioa areagotzen ditugu mugak zeharkatzen dituzten pertsonen alde, baita bidea urratzen duten eta eskubideak aldarrikatzen jarraitzeko aukera ematen duten elkartasun- eta laguntza-sareak ehuntzen dituztenen alde. Geografiatik haratago, pentsamenduak, ideiak, abstrakzio eraikiak ere badira mugak. Historiaren kontzientzia izateak aukera ematen digu ulertzeko gaur egun mugak hesi gisa desikasteak duen garrantzia, bereizten eta isolatzen gaituzten elementu gisa alegia, eta, aldiz, zubi, konexio, elkargune eta harrera gune gisa ulertzeko. Proiektu honen amaiera iritsita, are argiago dugu Euskal Herriko memoria historikoa berreskuratzea baliagarria izan daitekeela amnesia kolektiboari aurre egiteko, ahaztu egiten baitugu atzo erbeste izan ginela. Atzera begiratzeak, atzo ihes egiteko abiapuntu zen lurralde baten historiaren islara alegia, lagundu egiten digu beren lekuan jartzeko eta gaur iristen diren pertsonen bidaian laguntzeko. Aski da gogoratzea erbestea eta babesa txanpon beraren bi aldeak direla, muga berberak alderantzizko norabidetan zeharkatzen dituzten bi bide.



Bibliografia

UNHCR (2020).«Tendencias globales de desplazamiento forzado en 2020.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.acnur.org/60cbddfd4>

UNHCR (2018).«Red regional de espacios seguros de las américas: lecciones aprendidas y herramientas.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.acnur.org/5c87fe7e4.pdf>

UNHCR (2021).«¿Cómo solicitar ser refugiado en México?» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://help.unhcr.org/mexico/como-solicitar-la-condicion-de-refugiado-en-mexico/>

ALONSO CARBALLÉS, J. (2007).«El primer exilio de los vascos, 1936-1939» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan <https://ojs.ehu.eus/index.php/HC/article/viewFile/4117/3667>

ALTED, A. (1997). «El exilio republicano español de 1939 desde la perspectiva de las mujeres.» *Arenal*. 223-238 orr. [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: http://clio.rediris.es/exilio/mujerex/mujeres_exilio.htm

ALTED, A. (2008). «Mujeres españolas emigradas y exiliadas. Siglos XIX y XX», *Anales de Historia Contemporánea*, 24, Murtziako Unibertsitatea.

APDHA (2019). «Derechos Humanos en la Frontera Sur» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.apdha.org/wp-content/uploads/2019/02/informe-frontera-sur-2019-web.pdf>

CASTILLO, A. & GARCÍA, K. (2021). «El Título 42 explicado: La oscura política de salud pública en el centro de una lucha fronteriza de Estados Unidos.». *Los Angeles Times*. [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.latimes.com/espanol/eeuu/articulo/2021-10-28/que-es-el-titulo-42-como-afecta-a-la-inmigracion-fronteriza-de-los-norteamericanos>

CEAR (2018). «Francia, las grietas del refugio en Europa». [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: https://www.cear.es/wp-content/uploads/2019/01/INFORME_ASILO_FRANCIA.pdf

CEAR-Euskadi (2020). «Bizitzeko ihes egin. Krimen antolatuen aurrean babesteko aliantzak eraikiz». Eskuragarri esteka honetan: <https://www.cear-euskadi.org/producto/huir-para-vivir-tejiendo-alanzas-que-protegen-frente-al-crimen-organizado/>

CHUECA, J. (1999). «Los borrados. Aportación a la historia del exilio a México en 1939», *Gerónimo de Uztariz*, 14-15 zk., 39-52 orr.

CNB (2020). «Informe sobre fosas clandestinas y registro nacional de personas desaparecidas o no localizadas.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: https://www.gob.mx/cms/uploads/attachment/file/535387/CNB_6_enero_2020_conferencia_prensa.pdf.pdf

CNDH (2019). «Informe Especial. Situación de las estaciones migratorias en México, hacia un nuevo modelo alternativo a la detención.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan <https://www.cndh.org.mx/sites/default/files/documentos/2019-11/Informe-Estaciones-Migratorias-2019-RE.pdf>

COMAR (2020). «Estadística COMAR» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.gob.mx/comar/articulos/estadistica-comar?idiom=es>

DE HOYOS, J. (2012) «Las mujeres exiliadas en la configuración de la identidad cultural y política de los refugiados españoles en México». *Revista de historia*, ISSN 1139-4250, zk. 27, 28-40 orr.

DOMÍNGUEZ PRATS, P. (2009). «La actividad política de las mujeres republicanas en México», *ARBOR Ciencia, Pensamiento y Cultura*, CLXXXV 735 urtarrila-otsaila (2009) 75-85 ISSN: 0210-1963.

ESPINOZA, E., & MENDOZA, C. (2020). «La violencia homicida contra las mujeres: una mirada a los países del norte de Centroamérica.» *Diálogos*. [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: https://dialogos.org.gt/sites/default/files/2020-06/Informe%20homicidios-mujeres-REVIP_042020.pdf

HUMAN RIGHTS WATCH (2020). «Deportación con escala: fracaso de las medidas de protección que establece el Acuerdo de Cooperación en materia de Asilo suscrito entre Estados Unidos y Guatemala.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.hrw.org/es/report/2020/05/19/deportacion-con-escala/fracaso-de-las-medidas-de-proteccion-que-establece-el>

ISACSON, A., MEYER, M., & SMITH, H. (2015). Informe de investigación: El control aumentado en la frontera sur de México. Una actualización sobre la seguridad, la migración y el apoyo de EEUU. WOLA (The Washington Office on Latin America) [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://imumi.org/documentos/El-control-aumentado-en-la-frontera-sur-de-Mexico.pdf>

MENDOZA, C. (2019). «Guatemala is not a “safe third country.” » *Diálogos*. [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.dialogos.org.gt/blog/guatemala-it-not-safe-third-country>

MORENO, M. & ORTUÑO, B. (2013). «Exiliadas españolas en Francia y Argentina: identidades transnacionales y transferencias culturales», *Storia delle donne*, 9. [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <http://fupress.net/index.php/sdd>, ISSN 1826-7505, FirenzeUniversity Press.

MORENO, M. (2011). «Las exiliadas, de acompañantes a protagonistas», *Ayer* 81/2011 (1): 265-281, Los intelectuales en la Transición; Asociación de Historia Contemporánea.

MORONDO, D., & BLANCO, M. (2018). «La situación de las personas LGTBI del Norte de Centroamérica con Necesidades de Protección Internacional en Guatemala y México.». *AECID* . [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.aecid.es/Centro-Documentacion/Documentos/Acci%C3%B3n%20Humanitaria/Estudio%20LGBTI%20Norte%20Centroamerica.pdf>

MSF (2020). «Sin Salida: La Crisis Humanitaria de la población migrante y solicitante de asilo atrapada entre Estados Unidos, México y el Triángulo Norte de Centroamérica (TNCA).» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.refworld.org.es/pdfid/5e5455fb4.pdf>

OIM (2018). «Caravanas Migrantes». [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://rosanjose.iom.int/site/es/caravanas-migrantes>

PÉREZ, T. (2017). «Intelectuales españoles en México: el exilio republicano desde la perspectiva de la larga duración histórica», *Revista TSN, Revista de Estudios Internacionales*, 4. zk., uztaila-abendua, Malagako unibertsitatea, ISSN: 2530-8521.

SEDANO, N. (2019). «Duelos disidentes: voces de mujeres españolas y vascas exiliadas en Latinoamérica.» *University of Oregon, Tesis doctoral, Proquest*. [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://search.proquest.com/openview/33cf6afeac4d824adb17b6d995c65b4b/1?pq-origsite=gscholar&cbl=18750&diss=y>.

UNAH (2019). «Boletín especial No. 15 sobre Muerte Violenta de Mujeres y Femicidios, edición enero a diciembre de 2019.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: file:///C:/Users/Andrea/Downloads/Boletin-MVMYF2019Ed15%20(1).pdf

UNICEF (2020). «Familias que huyen. ¿Por qué se desplazan las familias desde el Norte de Centroamérica?» [sarean] <https://familiesontherun.org/es/>

UNODC (2019). «Global Study on Homicide: homicide trends, patterns and criminal justice response.» [sarean]. Eskuragarri esteka honetan: <https://www.unodc.org/documents/data-and-analysis/gsh/Booklet2.pdf>

VELÁZQUEZ, A. (2012). «La otra cara del exilio. Los organismos de ayuda a los republicanos españoles en México (1939-1949).» *Universidad de Salamanca*. Doktore-tesia.

ZABALA, JR. (2006) «Aportación intelectual del exilio femenino vasco en México», FERNÁNDEZ URTASUN eta ASCUNCE ARRIETA (koord.): *Ernestina de Champourcin. mujer y cultura en el siglo XX*, Biblioteca Nueva, 343-356 orr.

(e)



25 urte daramatzagu lanean eta Euskadin
erakunde erreferente gara gizaki guztiek babesa eta
asiloa lortzeko duten eskubidea aitortzeko borrokan.
Zehar-Errefuxiatuekin, elkartean errefuxiatuen, aberrigabeen
eta migratzaileen eskubideak defendatzen ditugu, eta horien
garapena sustatzen dugu hartzen dituzten gizarte berrian.

Atzo ere ihes egin genuen

Begirada euskal erbesteari eta gaur egungo
Mexikoko eta Euskal Herriko
igarobide- eta babes-prozesuei



(e)